



ARGIA

16-21. orriak

Ekonomia EBn Nork ordainduko ditu zorrak eta armak?



#2.772 | 2022 / 03 / 27 | 4,00 €



**"Microsoftek eta
Googlek asmatu
dute hezkuntzaren
'negoioan' sartzan"**

32 | HEZKUNTZAN LIBREZALE



**Getariako tabernei
boikota, turismoaren
ondorioak salatzeko**

36 | GIZARTEA



**LARRUN #272
Euskarafobia**

BADATOR ERALDAKETA LEHEN HEZKUNTZARA!!!

Graduondoko bi urteko formazio berria



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAKZIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
PAULA ESTÉVEZ

Iritziak

- 27 | DAVID BOU
- 28 | BEA SALABERRI
- 29 | BEÑAT IRASUEGI
- 29 | CASTILLO SUAREZ
- 30 | IÑAKI BARCENA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGÍ-KONTA:
ELENA CRESPI ASENSIO
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO
BUKATU



32 | HEZKUNTZAKO DIGITALIZAZIOA

Iñigo Gebara elkarriketatu du Axier Lopezek, Hezkuntzan Librezale taldeko kidea. Txikitatik ikasleen datuak eta diru publikoa multinazional handietara bideratzen direla azaldu du eta horri aurre egiteko egun martxan dauden proiektuak zein diren. EAEko Hezkuntza akordio berrirako proposamenak aurkeztu dituzte Jaurilaritzan.

Elkarriketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Ukrainako gerran esnatu da gerra nuklearraren izua
Pello Zubiria

16 | EUOPAR BATASUNEN EKONOMIA

Tanke bat Keynesen gainetik
Gorka Bereziartua

22 | PERTSONAIA | GEXAN ALFARO

"Kantuak egin du hemen politika-militantziak bezainbat lan"
Miel Anjel Elustondo

36 | GIZARTEA | TABERNEI BOIKOTA

Nortzuek helduko diote estatxari, getariarrek ala turistek?
Leire Artola

44 | KULTURA | ASIER ITURRALDE "GASTÓN"

"Espazio asko uzten dut landu gabe, ez zait gustatzen orrialde osoa marraztea"
Jon Torner

52 | ARGÍ-KONTA | ELENA CRESPI

"Begirada transinklusiborik gabe ez dago feminismorik, transfobia dago"
Saioa Baleztena

Jabetza
Komunikazio Biziagora
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Lehendakaria
Onintza Irureta

Erredakzioa
Amalia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua
Maitane Gartzandia

Argazkilaria
Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.

Administratzailea
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte

Salmenta
Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka
Mikel Olabide

Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde

Informatika
Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefona
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hemen hasten da

Espainiako kolonien arpilatze masiboan euskal herritar batzuek lortutako dirutza zutabe nagusia izan zen BBVAren sorkuntzan. Eta gauzak ez dira lar aldatu. Gerra du etekin eta bizigai Bilbo eta Bizkaiaren izena munduan barrena barreiatzen duen Madrilgo multinazionalak. Antimilitaristek salatu dutenez, bankuak gutxienez 4.450 milioi euro bideratu ditu azken urteotan hegazkin militarrek, tankeak, misilak edota arma nuklearrak ekoizten dituzten enpresak finantzatzeko. Negozio borobila, bakea sustatzeko funtsak armak erosteko eta gerrara bidaltzeko baliatzen diren garaiotan. Betikoen poltsikoak eta militarismoa handitzen jarrai daitezen. Irudian, Kontzientzia Eragozpen Mugimenduko kideen protesta zapatuan, 2008tik ari dira salatzen BBVAren akziodunen batzarrekin batera.

ENDIKA PORTILLO / FOKU AXIER LOPEZ



BBVA IRABAI
ODOLEZ B
#LaGuerraEm



A photograph showing a man holding a large yellow banner with black text and red splatters. The text on the banner is partially visible and reads "IZIAK", "LAI", and "piezaAqui". In the foreground, a body is lying on the ground, covered by a black shroud. The background is a stone wall with architectural details.

IZIAK
LAI
piezaAqui

EAEko hezkuntza hitzarmenaren gakoak

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

In *extremis* adostu dute alderdi politikoek EAEko hezkuntza hitzarmena: hasierako testuaren gaineko aldaketak negoziatu ostean, EAJ, EH Bildu, PSE eta Elkarrekin Podemos-IU alderdiek itxia zuten akordioa, baina aldaketak bozkatzeko egunean, adostasuna hantkaz gora jarri zuen bat-batean PSEk, eta urduritasuna eta tentsioa nagusitu ziren. PSEren desadostasunaren arrazoiak: legeak euskarari hezkuntzan emango dion lekua. Azkenean lortu dute lau alderdiek bat egitea hitzarmenarekin.

Adosturiko testua ez dute publiko egin, baina negoziaturikoa azaldu dute batzuek eta besteek. Apirilaren 7an egingo dute behin betiko bozketa, Eusko Legebiltzarrean.

EUSKARAREN LEKUA

Aurreko astekarian (2.771) aurreratu genuenez, euskara izan da gatazka iturri nagusietako bat hezkuntza hitzarmenarekin, batez ere hitzarmenaren hasierako testuak euskarari ematen zion zentraltasuna urardotu nahi zuelako PSEk, eta egungo hiru hezkuntza ereduak mantendu nahi dituelako (A, B eta D ereduak); aldiz, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemos-IUk hizkuntza eredu bakarra eskatu dute ikastetxe guztientzat.

Gai honen bueltan, hitzarmenaren bozketa egunean bertan EH Bilduk eta PSEk izan dute ika-mikarik handiena. Kontuak kontu, ez dirudi zirriborroko testua asko aldatu denik: ikasleek derri gorrezko hezkuntza bukatzean euskaraz eta gaztelaniaz B2 maila izan behar dutela esaten da, eta hirugarren hizkuntza batean B1 maila. Hori lortzeko, euskara ardatz duen sistema eleanitza eskatzen da ikastetxeen hizkuntza proiektu gisa, eta hizkuntza proiektu malguta dela azpimarratzen da, bertako errealitate soziolinguistikoaren arabera. PSEk esan du hiru hizkuntza eredu inguruan ez duela ezer esaten testu berriak –Euskalgintzaren Kontseiluak eta beste hainbat eragilek eskatua zuten testuak espreski jaso zezala hiru eredu eskema gaituzten dela–. Beraz, zirriborroa irakurrita

egiten genuen galdera bera egiten dugu: legeak zehaztuko al du “euskara ardatz duen eredu” izateak zer esan nahi duen, adibidez proportzioan zenbat ikastordu izan beharko diren euskaraz?

ITUNPEKOEI, BETEBEHAR GEHIAGO

Legeak bere baitan itunpeko ikastetxeak hartuko dituela eta %100eko finantzazio publikoa lortzeko aukera izango dutela ez zegoen zalantzan: Euskal Hezkuntza Zerbitzua deiturikoan parte hartzen duen ikastetxe orok jasoko du %100eko finantzazio publikoa. Parte hartzeko, zirriborroak betebehar bakarra jasotzen zuen: ikasleen segregazioari aurre egiteko konpromisoa. Testu berrituan, beste betebehar batzuk ere eskatuko zaizkio ikastetxeari: adibidez, sexuaren arabera ikasleak segregatzen dituzten ikastetxeek ez dute parte hartuko; laiktasuna ere betebehar bat izango da –Espainiako Gobernuaren LOMLOEk ezartzen duen erlijio kopuru minimoa izango da ikastetxeek erlijio ikasgaiari eskaini diezaioketen maximoa–; itunpeko ikastetxeek langileen kontratazio prozesu garden eta demokratikoak garatu beharko dituzte; irabazi asmorik ez dutela frogatu beharko dute; eta kuotarik ezingo diete kobratu gurasoei. Irizpide hauek modu progresiboan bete beharko dituzte.

ESKOLA PUBLIKOAREN PAPER

Hitzarmenaren zirriborroak argia ikusi zuenetik, jasotako kritikek bereziki salatu dute itunpekoen finantzazioaz

hitz egiten zen bitartean, sare publikoko ikastetxeak bazter uzten zituela, horien baldintzak hobetzeko nahikoa neurri hartzen ez zirela iritzita. Testu berrian, sare publikoaren rola indartzeko konpromisoak jaso dituzte alderdiek, eta sare publikoa sistemaren ardatz dela nabarmendu dute, gutxienez hitzez. Eskola publikoarentzat propio egindako plan estrategiko bat onartu dute –bere lortuentzat jo du plan hau Elkarrekin Podemos-IUk–, egungo plantillak sendotzeko, irakasleen egonkortasuna hobetzeko eta azpiegiturak berritzeko, besteak beste. Ikastetxe publikoen autonomia garatuko duen arau-esparrua sustatzea eta ikastetxe publikoek irakasleen plazak zehaztu ahal izateko mekanismoak jarritzea ere aurreikusten du hitzarmenak.

Ikastetxeak publikatzeko araudia ere garatuko da, baina publikazio prozesurik ez da zabalduko, Elkarrekin Podemos-IUk hori proposatzen zuen arren.

NEURRIAK SEGREGAZIOARI

Arrazoi sozio-ekonomikoengatik ikastetxeen artean ikasleek jasaten duten segregazioa gaituzte helburu zuen hasierako testuak, baina ez zuen neurri zehatzik jasotzen, eta hori ere salatu zuten eragileek. Bigarren testuan, neurriak ageri dira, tartean matrikulazio prozesuan esku hartzeko udal-bulegoak gaitzea, berandu hasten diren ikasleen eskolaratzean eragitea –eskolaratze orekatua irizpide hartuta–, ikasleen onarpenari buruzko araudia eguneratzea ikasle zaurgarrientzako plazak gordez, eta Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea arautzea, besteak beste.

25EAN GREBA

Aldaketak ezagutu aurretik, hitzarmenaren zirriborroarekin ados ez daudela argudiatuta, martxoaren 18 eta 28an elkarretartzeak eta 25ean greba deitu dute hezkuntzan ELA, LAB, STEILAS eta CCOO sindikatuek. Zirriborroak langileen aldarrikapenak ez dituela kontuan hartzen eta hezkuntza “publikoa, euskalduna eta propioa” nahi dutela diote. ●



JOSEBA LARRATXE

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Itsaso guztiak



ARITZ GALARRAGA

Predrag Matvejevic idazleak dio katalan bat ezagutu zuela Alexandrian, lanbidez erlojugilea, zeinak helburu zuen suntsitutako liburutegiaren katalogoa berregitea, Antzinaroko handiena, eskuragarri dauden datuak urriak izan arren. Kexu zen katalana bere ama hizkuntza galtzen ari zelako, eta galera hori nolabait konpentsatzeko beharra sentitzen zuen: “hegoaldeko eszentrikoak iparraldeko eszentrikoengandik diferenteak dira. Arrazoia ez da soilik klima desberdintasuna. Mediterraneon, mirariak ere desberdinak dira”, ixten du pasartea Matvejevicek.


Idazle kroaziarrak *Mediterranski brevijar* liburuan egiten duen ahalegina ere, xumeagoa, baina ez da hain ezberdina: Mediterraneo itsasoa agortzea, liburu bakarrean biltzea itsaso horrek esan nahi duena. Beste batzuk saiatu izan dira aurretik, Fernand Braudel historialari frantsesa, adibidez, *La Méditerranée et le monde méditerranéen à l'époque de Philippe II* lanarekin; baina ez, Claudio Magrisen hitzak erabiltzeko, Ulises garaikide baten gisan, mundua irakurriz, errealitatea, jendearen keinu-doinuak, anbar harriaren komertzioa, judu sefardien peleginazioa, mahatsondoaren zabalkuntza, ibaien bidea, kaletako soken usaina, itsasoaren iluntasunaren tonu aniztasuna. Helburu bakarrekin guztia: erantzuten saiatzea zer den Mediterraneo. Olia eta ardoa, garia eta espeziak, jakinduria eta ezagutza, armonia, logika, poetika, eta kaosa, gorrotoa, biolentzia, Atenas eta Esparta, Erroma eta barbaroak, Ekialdea eta Mendebaldea, kristautasuna, judaismoa, islama, likido amniotiko originala, gure zibilizazioaren sehaska: Mediterraneoan sortu zen Europa.

Itsaso guztiek itsaso berdina dirudite, itsaso bakarra, baina egiazki guztiak dira diferente. Kantauri itsasoan jaio baina Mediterraneoan bizitzen urteak daramatzan batek antzeko zerbaite esango lizueke. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Presoak

Yvan Colonnaren zigorra etetea erabaki du Frantziako Gobernuak, Colonnaren abokatuaren eskariari erantzunez.

“Osasun arrazoiak” argudiatu dituzte.

Egunotan Korsikan istilu larriak eragin ditu espetxean larri zauritutako presoaren aferak eta korsikar abertzaleen eskaerak hauspotu ditu.

Euskal presoak

Gorka Palacios absolutu du Espainiako Auzitegiak. Bi atxilotuk torturapean egindako adierazpenak ziren Palaciosen kontrako frogak bakarrik eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia berriaren arabera, adierazpen horiek ez dira kontuan hartu behar.

Etxe kaleratzea

Martxoaren 16rako kaleratze agindua zuen Donostiako Ategorrieta kalean bizi zen bikote batek. Etxebizitza Azora funts putrearen jabetzakoa izatera pasa ostean alokairua igo zieten, eta ezin izan zioten igoerari aurre egin. Etxe parean herritarrak mobilizatu ziren arren, kaleratzea gauzatu zuen Ertzaintzak.

EKONOMIA

Trantsizio energetikoa: *nork-zer-nora*



AINHOA ETXAIDE
AMORRORTU

Pozik agertu ziren María Chivite eta Iñigo Urkullu La Palmatik itzulterakoan energia berriztagarrien aldeko erabakiak hartu direlako. Espainiako Estatuko autonomia erkidegoetako lehendakariak martxoaren 13an egindako konferentzian, momentuko arazoari ez ezik, korapilo galanta den krisi energetiko orokorrari aurre egiteko urratsa egin omen dute. Adierazpenak begi onez ikusteko gogoak edo beharra dituenarentzat, trantsizio energetikoa egiteko bidea azkartu du Ukrainan gertatzen ari den gerrak.

Halako adierazpenekin gertatu ohi den bezala, esaten ez duten horretan dago koska. Nork marraztu, antolatu eta bideratuko du ustez martxan dagoen trantsizioa? Emaitzak ez dira berdinak izango berdez jantziz bere burua zuritu nahi duen Iberdrolak egiten badu, edo parte hartze soziala ziurtatuz erabaki behar diren politika publikoen bidez egiten bada. Zer da trantsizioa honekin aldatu nahi dutena? Jasangaitza den ekoizpen eta kontsumo eredu honekin jarraitu ahal izateko energia iturriak aldatu nahi dira? –Emmanuel Macronek energia nuklearraren alde egindako hautuaren logika berarekin–. Edo gehiegizkoa eta oso bidegabea den energia kontsumoa eskatzen duen eredu da aldatu nahi dena?

Eta batez ere, nora iritsi nahi dugu? Gauzak aldatzea denak berdin jarraitzeko, emaitza oso eskasak dituen bidea da. Eskasak guretzat, langileontzat. Urte gutxitan antolatutako zaintzaren merkatua ikusita, ez dut uste lekuz kanpo dagoenik pentsatzea berriztagarrien merkatuak izango duen hazkundearen imajinatze hutsarekin argindarraren kontsumoarekin espekulatzen dutenei hortzak zorroztu zaizkiela. ●

ANALISIA

Garraiolarien greba eta ekonomiaren arrakalak

URKO APAOLAZA AVILA

Greban dira Espainiako Estatuko kamioilari ugari eta eragina nabaritzen hasi dira beste arlo askotan, elikadura industrian kasu. Euskal Herrian Hiru sindikatuak eta Tradinsa Nafarroako elkarteak egin dute bat grebarekin. Garraio sektoreko prekarizazioak, energia kostuen ezin eramanak eta hornidura kateen menpekotasunak sistema ekonomiko honen itzalak agerian utzi ditu.

Garraiolarien Defentsarako Espainiako Plataformak deitu du lanuztea Espainiako Estatu osoan, erregaien prezioen gorakada salatzeko. Hornidura falta sumatzen hasi da hainbat sektoretan, batez ere antxoia eta berdel kanpaina betean dauden inguratze arrantzan eta esne-industrian. Enpresa kimikoez ere alarma jo dute hornidura gabe geratzen ari direlako eta horrek ur araztegiengan eragin dezakeelako: “Instalazio horiek ezin dira gelditu, osasun eta ingurumen arazo larriak sortzea eragin dezakeelako”, azaldu du EAEko enpresa kimikoen AVEQ-KIMIKA elkarteak arduradunak.

KOSTUEN AZPITIK LANEAN

Erregaien garestitzearen ondorioz garraiolariek salatu dute kostuaren azpitik ari direla lanean eta haien esanetan, garraio enpresa txiki eta ertainen %90 “erabateko kiebran” dago momentu honetan. Gasolioak %35eko igoera izan du azken urtean Espainiako Estatuan, eta gasolinak %24ekoa.

Hiru garraiolari autonomoen sindikatuak azaldu duenez, estatu mailako plataformak egin dituen aldarrikapenak osagarriak dira beraiek dituzten eskaerekin eta horregatik egin dute bat mobilizazioekin. Hiruren esanetan sektorean lan baldintzak prekarizatzen dituzten jokabide “makurrak” izaten dira, batez ere kooperatiba “faltsu” eta azpikontratazioetan. Horregatik, garraioaren tarifen berrikuspen sistematikoa eskatu dute, beste hainbat gauzen artean.

EKAITZ PERFEKTUA

Arantxa Tapia Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko sailburuak adierazi du ez duela “ezer aurpegiatzeko” greban dauden kamioilariak, baina Ukrainako gerraren egungo nazioarteko testuinguruan greba horrek “ekaitz perfektua” sortu dezakeela. Logistika eta portuetako arduradunekin egindako bileraren ostean egin ditu adierazpenok Tapiak, eta kazetari baten galderei erantzunez aitortu du Ertzaintza ez dela “irtenbide bakarra” errepideetan eta horniduran ematen ari diren arazoak konpontzeko: “Entzun egin behar dira zein diren beraien [grebalarien] arazoak, batzuk egiturazkoak dira, baina beste batzuk, erregaien prezioa bezala, azkar konpondu behar dira”.

ESPAINIAKO GOBERNUA: “ATZEAN ESKUIN MUTURRA DAGO”

Kamioilarien pikete eta protestek eta poliziaren erantzunak hainbat istilu eragin ditu Espainiako Estatuan, baita egoera arriskutsuak ere. Espainiako Gobernuak bozeramaile Isabel Rodríguezek “ultraeskuinak dituen jokabideekin” lotu ditu hauek eta nabarmendu du grebalariek beste langileak “boikoteatzen” ari direla. Zentzu berean, Raquel Sánchez Garraio ministroak esan du ez dela eseriko “biolentzia erabiltzen duten erradikal batzuekin”.

Adierazpen hauek harrabotsa sortu dute. Greba deitu duen garraiolarien plataformak “guztiz mesprextatuak” sentitzen direla azaldu du eta garraioaren sektore zati garrantzitsu bat “kriminalizatzen” ari direla.

PATRONALAK BADAHI ZER EGIN: GREBAN INTERBENITU

Automozioa, siderurgia eta petrolio enpresetako patronalek, beren aldetik, “urgentziazko interbentzioa” eskatu diote Espainiako Gobernuari, garraiolarien lanuztearen ondorioz lantegiak “gelditzea” eragotzeko. ●

70

telesail eta film euskaraz azpigitulaturata edo bikoiztuta eskainiko ditu aurten Netflix plataforma estatubatuarrek. Etorkizuneko Ikusentzunezkoen Legeak behartuko du bere edukien %6 hizkuntza koofizialetan eskaintzera.

5etik 3

Arnasguneetako euskararen erabileraren bilakaera negatiboa erakutsi du UEMaren azken ikerketak. 2017koa baino ikerketa are sendoagoa burutu dute eta erabilera orokorra ez da ia aldatu: bostetik hiru aritzen dira euskaraz.

3,3 milioi

errefuxiatuk ihes egin du Ukrainatik, Euskal Herri osoak adina. Nazio Batuen errefuxiatuen agentziaren datuak dira. Beste 6,5 milioi herrialdearen barnean desplazatzea eragin du Errusiaren inbasioak.

“2025erako Europar Batasunak bere armada eduki eta operazio militarrek egin nahi ditu”

JOSEP BORRELL

Europar Batasunak gastu militarra biderkatu eta 5.000 militarrez osatutako armada eratu nahi duela adierazi du EBko Kanpo politikarako goi ordezkariak.

2022-03-21



“SALATZEN DUGU ARTIKUTZARI ERE TURISMO ERABILERA EMAN NAHI IZATEA DONOSTIAKO UDALAK”

EH BILDU

Donostiako udal gobernuak Artikutzako ostalua birgaitu eta erabilera turistikoa eman nahi diola salatu du EH Bilduk. Udalak Europako Next Generation funtsen barruan aurkeztu du asmoa.

2022-03-21

“Gudak guztiz suntsitutako hirien zerrendan egongo da Mariupol, Gernika, Stalingrado, Grozny edo Alepo bezala”

NIKOS ANDROULAKIS

Mariupoleko Greziako kontsul nagusiaren hitzak dira. Mariupoleko azpiegituraren %80 suntsitu dute eta %80 horretatik %40 ez da berreskuragarria, ohartarazi dutenez.

2022-03-21



Algoritmo kutsakorrak



DIANA FRANCO

Badago bizi dugun munduan plaza asko. Plaza batean, beste pertsonekin harremanak izateko, bertako jokabide kodeak ulertu eta onartu behar dituzu. Plaza zehatz horretako jokabide kodea jarraituta, harreman arrakastatsuak izan ditzakezu. Plaza digitaletan, sare sozialetan, jokabide kodeek algoritmo forma hartzen dute, plazaren jabeek nahi dituzten helburuak lortzeko diseinatuta dauden algoritmoak.

Hala, gaur egun gizartean eragiteko bide ezberdinak ditugu: pertsonen arteko jokabide kodeak ez ezik, pertsonen arteko harremanak gidatzen dituzten algoritmoen jokabide kodeak ditugu.

Beti izan da zaila pertsonen arteko jokabide kodeetan eragitea, denbora eta lan asko behar da. Mundu analogikoan, ordea, pertsonen arteko jokabide kodeak ezagunak dira, gustuko ez duzuna hauteman dezakegu eta horren inguruan, orokorrean, ekintzaren bat egiteko gaitasuna dugu.

Algoritmoen kasuan ordea, nik ez dut nire burua gai ikusten eragiteko. Ez ditut algoritmo horiek publikatuta ikusten, jabeentzako abantaila konpetitiboa izanik jabetza industrialaren legeekin babestuta daudelako. Baina argitaratuko balituzte ere, ez dut behar den ezagutza haien baitan eragiteko.

Zentzu honetan, oso interesgarria iruditut zait ezagutu berri dudana Anna Heringer arkitektoaren pentsamendua. Proposatzen du bizi ditugun eraikinak ondoan ditugun materialekin eta komunitatean eraikitzea, iraganean bezala. Ideia horren atzean teknologia prekarioen kontzeptua dagoela uste dut. Ez du esan nahi lortuko den emaitza ez dela ona, baizik eta bidea denok ulertzeko eta eragiteko modukoa izango dela, gardena. Ideia horrekin ari dira lanean hacktibista asko, harreman digitalen zentzua berriz ere gure eskuetan jartzeko alternatibak garatuz. Anna Heringer-ek kutsakorra den zenbait arkitekturaz hitz egiten du, gure bizitzak eta komunitateak ahultzen dituen arkitekturaz. Beharbada, ildo berean, kutsakorra den zenbait algoritmiaren inguruan hitz egiterik dugu. ●



Pedro Sanchez eta Marokoko errege Mohammed VI 2018ko azaroan / EFE.

Inbasio hau ona da, bestea ez

AXIER LOPEZ

Lotsa ematen digu Espainiako Gobernuak kolonizazio txarra egiteaz gain, deskolonizazio are okerragoa egin izanak, Sahara utziz Marokoko eta Mauritaniako gobernu erreakzionarioen esku", adierazi zuen 1976an Felipe Gonzálezek sahararren errefuxiatu kanpamentuetara egin zuen bisita batean. "Elkarrekin egongo gara garaipen egunera arte", gehitu zuen *Mister X*-ek.

43 urte eta gero, Pedro Sánchezek ondorengoa jaso zuen 2019ko hauteskunde programan: "Mendebaldeko Saharako gatazka konpontzen laguntzeko, Nazio Batuen ebazpenen bitartek, sahararren autodeterminazioa sustatuko dugu".

Pasa den astean, Mozal Legea eta Lan Erreforma indargabetzera zetorren gobernuak ondokoa jakinarazi dio Marokoko errege Mohammed VI.ari: Espainiak ontzat jotzen du 2007an Marokok aurkeztu zuen Mendebaldeko Saharari buruzko autonomia proposamena; "gatazka konpontzeko oinarriak serioena, sinesgarriena eta errealistena da", Marokoko Errege Kabineteak zabaldu duenez.

Hau da, agur zapalduaren autodeterminazio eskubideari, kaixo okupatzailearen monarkia diktatorialaren menpeko autonomiari. Marokoarren xantaien aurrean amore ematea dela adierazi du Fronte Polisarioak, eta are mingarriagoa dela kontuan izanik Espainiako erregimena dela 1975etik Saharan irekita dagoen zauriaren erantzule nagusi.

Eta zer irabazten du PSOEek? Besteren artean, Marokok gorilarena egiten jarrai dezan migratzaileen aurrean eta pasa den maiatzeko irudiak ez errepi-katzea. Orduan, 10.000 pertsona baino gehiago sartzen saiatu ziren Ceutara, Marokoko mugako indar armatuek ezikusariena eginda. Marokoren erantzuna izan zen, Brahim Gali Fronte Polisarioko buruzagietako bat Logroño-ko ospitale batean COVIDaz artatzen uzteagatik. 10 hilabete geroago esan dezakegu pertsonen bizitza xantaia gisa erabiltzeak funtzionatzen duela.

Aldaketa historiko hau bere gobernukidearen bizkar egin du PSOEek eta inolako adostasunik bilatu gabe beste ezein alderdi politiko edo erakunde sahararrekin. Baina kezkarriena da, nazioarteko zuzenbidea urratuz egin dutela, egunotan Errusiaren aurrean defendatzen ari omen diren hori bera. Ez dezagun ahaztu Nazio Batuen Erakundeak eta Nazioarteko Justizia Gorteak, besteak beste, hainbatetan adierazi dutela Sahara deskolonizatzeko dagoen lurraldea dela. Bai, kolonialismoaz ari gara XXI. mendean eta PSOEek laguntza paregabea eman dio kolonizatzaileari, Sahara arpilatzen jarrai dezan.

"Ukrainara armarik ez bidaltzea hipokrisia izugarria eta akats historikoa izango zen", zioen berriki Europar Batasunaren Kanpo politikarako goi ordezkari Josep Borrell "sozialistak". Sahararentzat ere baliagarria izango da gerrara joatea beste aukerarik gertatzen ez zaienean? ●

Korrika, euskaraz HitzEkiteko prest

 LEIRE ARTOLA

Martxoaren 31n hartuko dute lekukoa Amurrión, eta eskuz esku ibiliko da 2.575 kilometroz, harik eta Donostian ezkutuko mezua zabaldu arte, apirilaren 10ean. ARGIAk jarraipen berezia egingo dio 22. Korrikari.

Aurreneko edizioko xede bera izango du aurten-go Korrikak: euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta AE-Kren eguneroko jardunerako dirua biltzea. Hala ere, antolatzaileek gogorarazi dute jada ez dela nahikoa euskararen alde egitea eta ekiteko ordua dela. *HitzEkin* leloan laburbildu dute 22. Korrikako helburua: "Hizkuntza bat hitzekin osatzen da, baina ekimenek eraikitzen dute hizkuntza baten komunitatea. Euskarak aurrera egin nahi badu, euskaldun (pro)aktiboak behar ditu, konbentzimendutik ekintzara, praktikara, jauzi egingo dutenak". Jendarte osoari egin diote Korrikara batzeko deia, Amurriotik Donostiara, herriz herri, eskuz esku, eta urratsez urrats. "Eginez eragingo dugu eta eginaraziko diogu elkarri, ikasle, agintari zein eragile orok, guztio elkarrekin".

ARGIAk jarraipen berezia egingo dio euskararen lasterketari, eta Leire Artola kazetariak bertatik kontatuko ditu azken berriak. Egunero argia. eus atarian eta sare sozialetan topatu ahalko dituzue albisteak, elkarriketak eta argazkiak.

2.575 KILOMETRO

Egun gutxi falta da mezu sekretua duen lekukoa Euskal Herria zeharkatzen hasteko. Amurrión ekingo diote bideari, martxoaren 31n, 16:30ean, eta Donostian bukatuko dute hamar egun geroago, apirilaren 10ean. Au-

rreikusi dute 12:30ean hasiko dela amaiera ekitaldia eta mezuaren irakurketa. Berrikuntza bat gehitu du AEK-k: mugikorrerako aplikazio bat martxan jarri dute, zeinak aukera ematen duen unean unean lasterketa non dagoen ikusteko. Bertan, modu erraz eta argian kontsultatu daiteke ibilbide osoa, baita norbere herritik zer ordutan igaroko den ere, besteak beste.

Egun hauetan pasako da hiriburuetatik: Gasteizera apirilaren 1ean ailegatuko da, 17:00ak aldera; Iruñean apirilaren 2 goizean ibiliko da, larunbatean; Donibane-Garazira astelehenean iritsiko da, apirilaren 4an, 17:00ak inguruan; egun berean Mauletik igaroko da, 21:30 inguruan; Bilbo izango da hurrena, apirilaren 6an, iluntzean; Baiona larunbatean gurutzatuko du, apirilaren 9an, 17:30 aldera; azkenik, apirilaren 10eko 7:30ean sartuko da Donostian, eta goiz osoan ibiliko da hiriburu kaleetan.



ENTZUN, IKUSI, SENTITU: HITZEKIN

Korrikari doinua jarri dio *Hitzekin* kantuar; Nerea Urbizu arduratu da musika ez ezik ahotse ere jartzeaz, Ane Garcia eta Anarirekin batera, eta Sustrai Colinaren letrarekin. Halaber, *Uhinak* dokumentala ekoitzi dute Txakur Gorria sormen kolektiboak eta AEK-k. Korrikak aurten Pirritx, Porrotx eta Marimotots omendu ditu, 34 urteko ibilbide arrakastatsua balioan jartzeko. Izan ere, antolatzaileek azpimarratu dute pailazoez lan handia egin dutela guraso eta umeen arteko euskararen transmisioan zein normalizazioan: "Beren ikuskizun eta kanten bidez, egin, eginarazi eta eragin dute". ●

UKRAINAKO GERRAN ESNATU DA **GERRA** **NUKLEARREN IZUA,** KUBAKO MISILEN KRISIAREN 60. URTEURRENEAN

2022ko otsailean gerra berpiztu da Europan, herrialde baten inbasiotik harago kontinente osoa eta agian mundua sutuko lukeen gerraren beldurra. 24an Errusiako armadak Ukraina inbaditu zuela jakinaraztearekin batera deklaratu zuen Vladimir Putinek: “Norbaitek asmorik baldin badu guri bidea oztopatu edo gure herrialdea eta jendea mehatxatzeko, jakin beza Errusiak berehala erantzungo diola, hark bere historian sekula ikusi ez dituen ondorioekin”. Arma atomikoekin mehatxu egiten ari zen, europar askok ulertu zutenez.

 **PELLO ZUBIRIA KAMINO**

Ukrainaren inbasioa hasita lehen eguna amaitzerako, otsailaren 24an, militar errusiarrek Txernobylgo zentral nuklearra okupatua zuten. Hiru egun beranduago, Putinek “armada errusiarraren disuasio indarrak –esan nahi baita arma eta antolakizun atomikoak– konbaterako alerta berezian” jartzeko agindua eman zuen. Martxoaren 4an jakin zuten europarrek sutea zegoela Zaporizhiako zentral nuklearrean, Europako handienean: goizaldean artilleriaz erasotu zuten errusiarrek hura okupatzeko. Eta biharamunean Kharkiveko Fisika Institutua leherrarazi zuten, bere ikerketako laborategi atomiko eta guzti. Horra nola sartu den, ezustean eta kolpetik, atomo militarra europarron bizimoduetan.

Historiak krudela izaten badaki bihotz oneko jendeekin: justu hilabete lehenago, 2022ko urtarrilaren 22an, sartua zen indarrean Arma Nuklearrak Debekatzeko Ituna (TPNW ingelesezko sigletan), Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak 2017ko uztailaren 7an sinatua. San Fermin egun hartan munduko 122 herrialdek eman zioten baiezkotua itunari, Singapur abstenitu eta Herbehereek ezezkoa emanik. Alabaina, 69 herrialdek –indartsuenek preseski– uko egin zioten bozketan parte hartzeari, tartean bonba atomikoa eskueran daukateneak; guri dagokigunez, aspalditik daukan Frantziak eta NATOren kide izateagatik arma nuklearren erabilera eskatu hartzen duen Espainiak ere, euskaldunok ordezkatzeko gaituztenak, muzin egin zioten ituna bozkatzeari.

ARGIA orduan kontatu genuenez, bozketa historiko hartara iristeko sei urtez lana beltz egin behar izan zuten mugimendu bakezaleek eta gerra atomikoaren kontra mobilizatzen diren militante eta pertsonalitate ezagunek, ICAN Arma Nuklearrak Debekatzeko Nazioarteko Kanpaina deitu erakundeak sustatuta. Itunaren beharra argudiatzeko ziotenez, “arma nuklearrak debekatu eta desagitea mundu mailako lehentasunetako bat da. NBERen batzar nagusiak gu horretara hurbiltzeko aukera handia dauka eta ez digu huts egin behar”. Potentzia handiek 15.000 arma nuklear baino gehiago dauzkaten pilaturik, horiek gerra batean lehertuz gero, Lurra negu nuklearrean murgilduko lukete, bizirautea lortuko luketen jendeak irradiazioek eragindako kalteen mende ge-

**GROM 2022 MANIOBRAK.**

Ukraina inbaditu bezperetan, Errusiako armadak "Grom 2022" maniobrak burutu zituen, bomba atomikoa eramateko gai diren misilekin. Argazkia: Errusiako Defentsa Ministerioa.

ratuko lirateke belaunaldi belaunaldi, giza bizitza berreraikitzeaz azpiegiturak oro suntsituta, ekosistema osoak mehatxatuz eta gizadia amaitze arriskuan jarritz. Mehatxu hori pixkanaka arintzen joateko itxaropena piztu zuen NBE batzar orokorrak 2017ko udan.

Bost urteren buruan, ordea, arma atomikoen kontrolari dagokionez esan liteke 1962ra egin duela atzera munduak. Duela 60 urte egon zen mundua gerra nuklear bat piztetik sekula egon den hurbilen, Kubako misilen krisian. Fidel Castroren iraultza uhartean nagusitu eta gutxira, AEBen eta Kubaren arteko krisi lokal bat izan zitekeena AEBen eta Sobiet Batasunaren lehia zabalago baten baitan katramilatu zen. 1958an amerikarrek Italian eta Turkian 'SM-74 Jupiter' misil balistikoak kokatu eta laster, 1962an, sobietarrek Kubako gobernuarekin hitzartu zuten uhartean

2017an NBEetan onartu zen Arma Nuklearrak Debekatzeke Ituna; 2022an bonbaren mehatxua zabaldu da berriro

–Floridatik 140 kilometrora– ipintzea 'R-12' eta 'R-14' misilak.

Historiak kontatzen du John F. Kennedyk, Kubari militarki eraso eta gerra pizteari hobetsi ziola uhartea blokeatu eta Nikita Khrustxovekin negoziatzea-ri. Gogor negoziatu ostean, heldu ziren

adostasun batera: Sobiet Batasunak misil balistikoak Kubatik aterako zituen eta AEBk publikoki hitz emango zuen ez zuela uhartea inbadituko. Hori jendaurrean aitortu zutena, zeren eta itun ezkutuago batean amerikarrek onartu zuten Turkiatik ateratzea ezarri berriak zituen misilak. Aurrera begirako, berriz, zuzeneko komunikazio lerro bat finkatu zuten bi potentzia nuklear handiek.

1962 hartan hasi zen zabaltzen, aferra militarrez aritzean, "Elkar suntsiketa ziurtatua" kontzeptua, ingelesez *Mutual assured destruction* teoria: bi potentziek gerran leherrarazten baldin badituzte arma atomikoak, biak daudela erabateko suntsiketara kondenatuak, arma atomikoak edukitzea dela etsaiari erasotzeko gogoak kentzeko modua eta behin arma lasterketa abiatuz gero, ez batzuek eta ez besteek daukatela interesik ez besteari gerra egiteko, baina ezta

beren buruak desarmatzeko ere. Egia esan, teoriak ingelesez dauzkan siglek –MAD– “zoroa” ere esan nahi dute, heriotzaren estrategentzako ezin egokiagoa.

Gerra Hotzaren garai haietan gizadiaren akaberaren arriskua hain hurbiletik ikusteak hainbat erreakzio ernarazi zituen ondorengo urteetan. Hedabideetan zabaldutako informazioez gain –Espainian prentsa zentsuratuta zegoen, ez da ahaztu behar gaiok Hego Euskal Herrian izan zuten oihartzun ahulagoa ulertzeko– artean, literaturan, antzerkian eta zineman presentzia handia eduki zuten atomoaren arriskuek. Bat aipatzeko, Stanley Kubrickek burutu zuen gaur gutxik gogoratzen duten *Dr. Strangelove* filmak (*Docteur Folamour* Frantzian, Espainian *Teléfono rojo, ¿vamos hacia Moscú?*), militar eta agintariak erakutsi zituen –umore beltzez– mundua di-dabatean suntsitu dezakeen bonba atomikoarekin jolasean. Eta Erdiko eta Iparreko Europan agintariak erradiazioaren beldurra gaintzeko herri eta etxeetan leherketa atomikoetarako babeslekuak

Txernobyl eta Zaporizhiako zentral nuklearrekin ikusi denez, gaurko munduan nuklear zibila arma bilakatu da

eraikitzea sustatu zuten.

Herritarren artean, Mendebalde osoan loratu ziren gerraren, bonbaren eta oro har, energia atomikoaren aurkako mugimenduak, hainbat borroka epiko burutu zituztenak, hamarkada batzuen buruan lausotzen joan zirenak. Horiek ere izan zuten eragina potentzia handiek arma nuklearrak kontrolatzeko burutu behar izan zituzten negoziaketa berrietan. Adierazgarria izan da, Ukrai-

nako gerrak piztu berri denean, hainbat adituk argudiatzea 1968an sinatutako Armen Ez Ugaritzeko Itun hura eguneratu eta NATOk eta Errusiak Europarako segurtasun marko berri bat adostu beharra daukatela.

Mundua arras aldatuta dago 1968 hartatik, zer esanik ez 1962tik. Jostailu atomiko hilgarria orduan baino aktore gehiagoren esku dago, askok publikoki aitortu gabe gainera. Suntsiketa masiboko armak –hasi kimikoetatik, bakteriologikoak, zibernetikoak...– askoz anitzago eta ugariagoak dira. Siriatic Yemenera, Libiatik Irakera, munduak jada ezagutzen du puntako teknika eta taktika odoltsuenen katalogo zabala. Baina, gainera, arma atomikoen aspaldiko itunetatik at utzi ziren zentral nuklear zibilen artean istripuz Txernobylekoak eztanda egin zuen 1986an Europa erradioaktibitatez kutsatuz eta 2011n Fukushimaoak, ia behartu zuena Japoniako zati handi bat ebakutzera.

Asteotan Txernobyl eta Zaporizhiako zentral nuklearrekin ikusi denez, delako

ZAPORIZHIAKO ERASOA.

Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziaren zuzendari Rafael Mariano Grossi prentsari azaltzen Zaporizhiako zentral nuklearreko erasoa, martxoaren 4an.



LISA LEUTNER



NBE-REN AIPAGAIETAN, 1962 URTEAN ERE.


NBEren Segurtasun Kontseiluaren bilera 1962ko urriaren 15ean: AEBetako enbaxadoreak erakutsi zituen Kuban Sobiet Batasunak kokatutako misilen irudiak.

“atomo zibila”-ren ugaritzeagatik “gaurko munduan nuklear zibila arma bilakatu da”, Jean-Michel Bezatek *Le Monde*-n idatzi duenez: “Lehenbiziko zentralak abian jarri geroztik 1950ean, sekula ez zen lehertu halako gatazka gogor bat herrialde nuklearizatu batean. Ukrainak badauzka hamabost erreaktore lau zentralatan, behar duen argindarraren erdia ekoizten diotenak, gehi atomoarekin ikertzen duten zentroak eta hondakin erradioaktiboan biltegiak”. Horra nola

Europar Batasunak berrikitan energia iturri berdetzat bataiatutako nuklearrak armak ere badiren. Batetik, etsaiari kendu beharreko arma, hango teknologia eta subproduktuekin bonba egin dezakeelako. Bestetik, etsaiari bere etxe barruan leherrarazi dakiokkeen arma, energia gosearen eraginez etxean bertan onartzen duena, etsaiaren xantaiari bidea zabalduz.

Gerra handi guztietan bezala, Ukrainakoan ere badira gerra bat bai-

no gehiago. Gutxienez bi hauek: bata Ukraina estatu burujabearen eta Errusia potentzia inbaditzailearen artekoa, bestea NATOren eta Errusiaren artekoa. Eguneroko triskantzen irudi eta kroniketatik harago, gero eta gehiago nabarmentzen da Europarako segurtasun marko bat finkatu beharra. Ikusiko da ea hori negoziatzea lortzen den Strangelove doktore berriek kontinentea, zati batean edo osorik, suntsitu baino lehen. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com



EUROPAR BATASUNeko EKONOMIA
UKRAINAKO GERRAREN ERDIAN

Tanke bat Keynesen gaineretik

COVID-19aren ostean ekonomia suspertzeko iragartzen ari ziren neurri ekonomikoak ezbaian jarri ditu Ukrainako gerrak. Azken asteetan mota askotako erabakiak hartzen ari dira Europar Batasuneko agintariak. Horietako batzuek zuzenean eragingo dute herritar arrunten bizimoduan. Egoera konplexu horren zenbait gako azaltzen saiatuko gara ondorengo lerroetan, Baleren Bakaikoa ekonomialariaren laguntzarekin.

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Gaurko egunkarian irakurtzen dituzun iragarpenen problemetako bat da, bihar-ko egunkariak ekarriko duen albiste batek hankaz gora jar ditzakeela. Azken bi urteak oparoak izan dira mota horretako albisteei dagokienez. Eta bereziki zailak informazio ekonomikoa lantzen duten kazetarientzat.

COVID-19aren okerreana pasa zela zirudienean, pentsa zitekeen nahiko finkatuta zeudela Europar Batasuneko (EB) politika ekonomikoak norantz joango ziren aurreikusteko osagaiak. EB asko zorpetu

zen: pandemia osteko errekupeazioa bultzatzeko *Next Generation EU* funtsa martxan jarri ahal izateak eskatu zuen ahalegin hori -1,82 bilioi euro; horien zati bat estatuek jaso bai, baina ez dute itzuli beharko-.

Politika ekonomiko berri horrekin lotuta, trantsizio berdeaz eta digitalaz ziharduten albiste asko. Zenbait adituk John Maynard Keynesen ideiak berreskuratzea ere proposatu zuen, alegia, estatuek politika ekonomikoan esku hartze handiagoa edukitzea, besteak beste enplegua sustatzeko edo errenta altuenei presio fiskal handiagoa ezartzeko.







ETIENNE ANSOTTE / EUROPAKO BATZORDEA

COVID-19aren krisiari aurre egiteko "Europarentzat Marshall Plana" iragarri zuen Ursula Von der Leyenek 2020ko apirilean. Ukrainako gerrarekin, ordea, beste lehentasun batzuk izango ditu EBk.

Osasun larrialdiaren osteko errezeta ekonomikoek, beraz, ez ziruditen 2008ko finantza-krisiari aurre egiteko erabili zirenak. Oraingoan, murrizketa-politikak baino, inbertsio eta interbentzio publikoan oinarritutakoak nagusituko zirela zabaldu zuten agintariek. Neurri horien premiaz aritzean, 2020ko apirilean, Ursula Von der Leyen Europako Batzordeko presidentek Marshall Planaren pare jarri zituen. Erregistro-aldaketa esanguratsua ematen zuen, kontuan izanda CDUko kidea dela, alegia, aurreko krisialdiari aurre egiteko planteamendu austerizidak gehien bultzatu zituen alderdikoa.

Hori zen argazki orokorra prentsa-irakurle arruntarentzat 2022ko otsailaren 24ra arte. Albiste batek –Errusiak Ukraina inbaditzeak–, eta ondorengo egun eta asteetan ia minuturo argitaratu diren erreakzioek, ordea, zalantzan jarri dute dena.

Diru bera,
gastu handiagoak:
inflazioaren
eragina jada kaleko
elkarrizketetan
sumatzen da

EB INFILAZIOAREN MENPE

Gerraren lehen albo-kalte ekonomikoetako bat petrolioaren prezioaren igoeran sumatu da. Baleren Bakaikoa ekonomialariak ARGIAri azaldu dionez, ez da autoaren depositua betetzean bakarrik nabaritu den zerbait: "Erregaiak garestitzea produkzio-kostuetara pasatzen da eta horrek inflazioaren eragina du". Petrolioak bakarrik ez, gasa ere geroz eta garestiago dago, nahiz eta kasu horretan mugimendu espekulatiboak gerra hasi aurrekoak ziren –azken hilabeteetan nabarmena izan da prezioen igoera–. Gainera, garia, artoa edo eguzki-lorearengatik ere geroz eta gehiago ordaintzen ari da, Errusiak Ukrainaren kontrako eraso hasi zutenetik. "Erabat garestitu dira, han ekoizten direlako. Errusia eta Ukraina dira Europako aletegiak. Hori izan da EBren hankasartzeetako bat. EB sortu zenean,

helburuetako bat zen elikagaien burujabetza garatzea. Lehenbiziko urteetan nahiko ondo funtzionatu zuen, baina gero joan zen irekitzen, kanpotik ekartzen; eta oso menpeko bihurtu gara Ukraina eta Errusiarekiko”.

Ekonomialariak ari ziren inflazioaren arriskuaz hitz egiten gerra baino lehen ere. Diferentzia da, orain gaia izokin koloreko paperean inprimatzen den prentsarik kaleko elkarriketa arruntetara pasa dela. Izan ere, prezioak igotzen badira eta soldadak ez, diru berarekin gastu handiagoei aurre egin behar diete herritarrek. Eta horrek esan nahi du pixka bat pobrea goak direla orain, duela hilabete batzuekin konparatuta. 2008tik guztiz burua altxa ez duten ekonomia domestiko askok jasan dute jada kolpe berria.

Ez da hori bakarrik, noski. Beste esanahi asko ere baditu inflazioaren igoerak. Esan nahi du, adibidez, erosketak egiteko erabiltzen dugun txanponak ere nabaritzen duela gerra. “Inflazioa hemen eta AEBetan berdina balitz, dolar-euro trukea nahiko egonkor mantendu ahalko litzateke. Baina EBN asko ari da igotzen, lehengaien premia handia daukagulako; eta AEBek berriz, ez dute hainbesteko presiorik, dibertsifikatu ditzaketelako beren petrolio eta lehengaien iturriak”. Labur esateko: EBko inflazioa askoz gehiago igotzen baldin bada, dollarrarekin trukean euroa galtzen aterako da. Dauzkagun euroak gutxiago balio dezakete, egoerak lerro hauek idazten ari garen unean doan bidetik jarraitzen badu.

NOR DA NEOLIBERALAGO?

Hori gerta ez dadin, prezioak egonkor mantentzeko politikak jarri beharko ditu martxan Europako Banku Zentralak (EBZ). Eta horretarako erabiltzen duen tresna interes-tasak dira. “EBZk horrekin bakarrik funtzionatzen du, bere helburua prezioen egonkortasuna delako”, azaldu du Bakaikoak. “AEBetako Erreserba Federalak aldez, bi helburu ditu: prezioak egonkor mantentzea eta enplegua sortzea. Enpleguari ere arreta ematen diote eta inflazioa baldin badago, ez dute nolanahi interes-tasa handitzen, hori eginez gero enpresek ez dituztelako maileguak eskatzen. Bi aldagaiak izaten dituzte kontuan. EBN berriz, inflazioaren helburua bakarrik daukate, enplegua bost axola. Hortaz, arriskua daukagu desenplegua handitzeko”.



EBZren eta Erreserba Federalaren arteko desberdintasun horrek, neurri batean behintzat, puskatu egiten ditu EBren eta AEBen ekonomiei buruz nahiko zabalduta dauden zenbait aurreiritzi. AEBak jo ohi dira praxi neoliberalaren erakusgarri nagusitzat. Irudi hori ez da guztiz okerra, baina hedabide honen irakurle gehienak EBko kide diren bi estatutan bizi garenez, ñabardurak egitea komeni da. Izan ere, Bakaikoaren ustez, “EB askoz ere neoliberalagoa” da politika ekonomikoei dagokienez, “nahiz eta ahoa ‘ongizatea’ bezalako hitzez bete. Hori iraganetik dator, baina gutxitzen ari da”, bere esanetan.

Zehaztu duenez, AEBek askotan ia estatuaren esku-hartzerik gabeko herrialdearen itxura eman badezakete ere, “behar dutenean Keynes erabiltzen dute. Aldiz hemen, Keynesek diseinatu zuen estatuaren izenean hitz egiten dute, baina ez dute erabiltzen behar denean”. Bizitzan ari garen momentu hau izan daiteke salbuespena, baina ikusteko dago: “Badirudi enpresa pila bat ixteko arriskuan dagoela, eta pixka bat iturria ireki du Europako Batzordeak enpresa horiei laguntzak emateko, biziraun dezaten. Baina AEBetan konplexurik gabe egiten dute. Donald Trumpekin ere hartu ziren ildo horretako neurriak, pentsa: familiei 2.000 dolarreko txekak eman zitzaizkien. Hori neurri keynesiarra da: kon-

tsumoa sustatzeko estatuaren diru-laguntzak”.

GASTU MILITAR HANDIAGOA

Mota horretako laguntzak baino, beste batzuk iragartzen ari da EB gerra hasi denetik. 2022rako egindako aurreikuspenak jada ez dira baliagarriak, martxoaren 14an Paolo Gentiloni Ekonomia komisarioak adierazi zuenez. %4ko hazkundera iristea “zaila izango da”, haren esanetan. Lehentasunen mapa ere aldatu da. Alor batzuek diru asko eramango dute. Honakoak aipatu zituen: “Ukrainari laguntza ekonomiko eta materiala; defentsa alorreko gastua; Errusiako energiatik bereiztea; errefuxiatu kopuru handi batentzat harrera; lehengaien prezio altuei eta produkzioan izango diren etenaldiei aurre egiteko laguntza iraunkorra”.

Zerrenda horretan badago zenbait lobbyren azken urteetako presioei erantzuten dien pieza bat: gastu militarra handitzea –Gentilonik “defentsa alorreko gastua” eufemismoarekin aurkeztu zuena–. Bakaikoak gogora ekarri duen moduan, Trumpen agintalditik ari ziren AEBak NATOko herrialdeei gastu militarra handitzeko eskatzen, “arrisku berri baten aurrean” ondo armatuta egoteko. Ukrainako egoerak norabide horretan pausoa ematea erraztu die gutxiago gastatzen zutenei.

Gasaren gerra

Edozein gerrak galtzaile asko izaten du. Baina badira egoerari etekina ateratzen diotenak ere. Errusiarekiko dependetzia energetikoa gutxitu nahi duten EBko herrialdeek azkarrago egin beharko dute beste energia-iturri batzuetarako trantsizioa, baina hori gauzatzen den bitartean, hutsune energetikoa betetzeko bide berriak bilatu beharko dituzte. Eta Bakaikoaren iritzi, hori AEBei ongi datorkie. Fracking bidez ekoizten duten gasak orain gerra-egoeraren gatibu bilakatu diren bezeroak dauzka Europa mendebaldean. Berrez teknika horren bidez lortutako erregaiak produkzio-kostu askoz handiagoak ditu beste iturrietatik lortutako gasak baino. Baina orain errentagarria bihurtu da, prezioak sabaia puskatzen ari diren egoera batean gaudelako; eta horren eraginez, kostuak erraz berdintzen dira.

“EBk, Norvegia kenduta, ez dauka ez gasik eta ez petroliorik”, gogorazi du Bakaikoak. “Kontinente be-

rean Errusia zen horiek inportatzeko hurbilen zegoen lekua. Europako motor ekonomiko handiena Alemania da, eta apustua egin zuen Errusiako gasarekin eta petrolioarekin funtzionatzeko. Horregatik zen hain inportantea Nord Stream 2 gasbidea”. Baina otsailaren 22an, lehenago inportatzen zuen gasaren bikoitza garraiatzeko pentsatutako proiektu hori izoztu zuen Alemaniak, Vladimir Putinek egun bat lehenago Donetsk eta Luhanskeko errepublikaren independentzia formalki onartu ostean.

Hala ere, gasbide horren inguruko tira-birak ez dira atzo goizekoak. Lazko irailetik bukatuta egon arren, ez zen martxan jarri. Zergatik? ARGIA-ren irakurleek gogoratuko dute aldikari honetako Net Hurbil sailean iazko maiatzean argitaratutako artikulua: “Nord Stream 2 gasbidearekin Europa katramilatuta Mosku eta Washingtonen lehian” izenburua jarri zion Pello Zubiriak artikulua hari eta egungo egoera esplikatzen balio dezaketen zenbait gako eman zituen.

Besteak beste, Errusiaren eta AEBen arteko norgehiagokan Ukrainak jokatu zuen rola: “Errusiatik Europa asetzen zuen hodi nagusia luzaz Ukraina zeharkatzen zuena zen eta ukrainarrak saiatzeko ziren Sobiet Batasunaren aroak utzitako ondare horri zukua ateratzen, kanalaren erdi-bideko giltza zabalik edukitzearen truke errusiarrei prezio eta baldintza hobeak kobratzeko. 2014ko Krimea galtzea eta berriketan be-roaldia nozitu duen Donbasseko gerra, ezin ulertu gasaren liskarrik gabe. Ukraina saihesteagatik, gainera, Moskuk mugimendu bikoitza egin du azpiegiturretan: hegoaldetik hodi berri bat eraiki Turkia zeharkatuta Bulgaria eta Serbian barrena iristeko Hungaria eta Austriaraino, eta Iparraldetik Nord Stream hodiari bigarrena gehitzea”.

Alde bateko zein besteko propaganda alde batera utzita, irakurlea gai izango da osagai horiekin gerra honen atzean dauden oinarri ekonomikoak zein diren antzemateko.



Nord Stream 2 gasbidearen inaugurazioa 2011. urtean. Argazkian, erdialdean, Angela Merkel garaiko kantziler alemaniarra eta Dimitri Medvedev, une hartan Errusiako presidente zena.



SURA / PIXABAY

Petrolioia eta gasa bakarrik ez: garia eta beste zenbait zerealen prezioak ere gora egin du Ukrainako gerrarengatik. "Errusia eta Ukraina dira Europako aletegiak", azaldu digu Baleren Bakaikoak.

Espainiako Estatua zen bat. Pedro Sanchezek martxoaren 14an iragarri zuen datozen aurrekontuetan bete egingo duela NATOren Europako kideei eskatzen zaiena: Barne Produktu Gordinaren %2 armetara bideratzea –gaur egun %1,4 gastatzen du, Stockholmeko Nazioarteko Bake Ikerketako institutuaren arabera–. Frantziako Estatuak berriz, betetzen zuen %2 hori eta 2025era arte gastua handitzea aurreikusia dauka, urtero 3.000 milioi euro gehiagorekin, 50.000 milioi eurora iristearaino –apirileko presidentzialek markatuko dute hurrengo bost urteetako norabidea, nolanahi ere–.

EBko auzi garrantzitsu gehienetan erreferentzia izaten den Alemaniak ere argi hitz egin du. "Tanke berriak behar ditugu, barku berriak... eta Frantzia bezalako bazkideekin eraikiko ditugu, European bertan", adierazi zuen otsailaren 27an Olaf Scholz kantzilerrak parla-

Europako funtsen zorrak eta gastu militarra handitzeak arlo sozialetatik are gehiago murriztea eragin dezake

mentuan. 100.000 milioi euro gehiago jarrita, Alemaniak ere BPGren %2raino iritsiko den gastu militarra izango du.

Gorakada horri erantsi behar zaio *Next Generation EU* funtsen zehazgabetasuna. "Berandu dabilta eta proiektuak

nahiko airean daude", Bakaikoaren esanetan. Iragarpen bat egitera ere auzartu da: "Nik uste asko gastatuko dela eta etekina ez dela beste munduko ezer izango. Eta gero ordaindu beharko ditugu, noski". Bi osagaiak elkartuta –gastu militarra handitzea eta EBko funtsen eragindako zorra–, ekonomialariaren ustez ohiko lekuetatik murriztuko dute agintariek azkenean: ongizate-gizarteko diru-partidak. Ez da ezer berria, noski: "Euroa indarrean sartzeko hartu ziren neurriak zein izan ziren? Gizarte-gastuak murriztea. 2008ko finantza-krisiari aurre egiteko modua zein izan zen? Gizarte-gastuak murriztea. Orain ere, defentsa gastuak handitzeko politika ezartzen baldin bada, gizarte-gastuak ukituko dira: pentsioak, hezkuntza... jadanik ukituta daudenak". Tanke batek zanpatuta desager daiteke Keynesen izena ekonomia saileko al-bisteetatik. ●

Gexan Alfaro

OLERKARI MILITANTE EUSKALTZALE



KANTUAK EGIN DU HEMEN POLITIKA-MILITANTZIAK BEZAINBAT LAN



Ez da haren nortasuna errazki definitzen. Anitz egin du, anitzetarik. 60ko hamarkadaren amaieraz gero, kantagintza berriaren izenetan ageri da Gexan Alfaro. Militante zaildua da, euskararekin kultura, kulturarekin politika, Ipar Euskal Herriaren historiaren jakile dugu joan den mende erditsuan.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Etsaminatzat hartu duzu solas hau, hainbat galdera jasorik. Ohiturik zaitugu gisako etsaminak egiten, hala ere.

Bai, seminarioan asko bagenuen. Urte bukaeran, beti baziren, eta huts ala kausi, beti aitzina! Kar, kar... Bizia bera ere, parte bederen, etsamina da. Norberak bere burua neurtzen du, baina bertzeek ere neurtzen dute norbera, eta neurtzen laguntzen. Horrela izan da beti bizia. Eta bizia bizitzea ez zait irudi neke denik, bizitzea plazera da. Hala eta guziz, badira ongiak eta gaizkiak, eta normalean, ontsalaz, horiek biak sentitzen ditugu denok, gureak eta bertzeenak. Baina oinarritzko baldintza bat baldin badugu –erran nahi

baita, osasuna–, horiek denak gainditzen badira, plazerarekin bizi daiteke.

Nor zen Lantzirikoa?

Ama. Mutuberria zuen deitura. Nafarroatik etorri izena duzu hori, aitarena bezala, funtsean: Alfaro. Gure gurasoak ezkondu zirelarik, joan ziren lehenik aitaren sortetxera, mendian gorago dagoen Domingarrenean deitu laborantzak etxera. Hori ere beti bizirik dagoen etxea. Gero, Lantzirian, segidarik ez izanez, orduan, amaren aita-amek dei egin zieten ea ez ote zuten nahi Lantzirira etorri. Eta horrela Lantzirian kokatu ziren, gaur egun oraino beti laborantzatik eta artzaintzatik bizi den etxean.

Eskola aipatu duzu. Frantses eskola, jakina.

Bai, herriko eskola bakarra zen orduan han, eta hizkuntza ere bakarra: frantseza. Gure artean, aldiz hizkuntza bakarra euskara zen, etxean bezala herrian ere, eta nola ez eskolako ateratze eta aire hartzeetan. Bazuten asmatua txotx txiki bat, eta hori elkarri banatzen genion: azkenik euskaraz mintzatzen zenak hartu behar zuen, eta eskolara sartzeko mementoan eskuan zuenak, bazuen zigorra. Eni ere gertatu zait aldi bat baino gehiago, bistan da. Euskaraz mintzo ginelarik gelan, irakasleak emaiten zizkigun asto-beharri handi batzuk bizkarean. Eta ni ere ibili naiz asto-beharri



Gexan Alfaro Lantziri

UREPEL, 1941



Olerkari, idazle, kazetari. Kantagintza berriaren sorkuntzan esku hartu zuen, kulturarekin politikan militatu du, ikastolen mugimendua aitzinatzen lagundu du Seaskaren barnean, Elkar argitaletxearen eta Zabal liburu-dendaren sortzaileetarik izana... Ipar Euskal Herriak joan deneko berrogeita hamar urtean osatu duen historiaren jakile eta lekuko zuzena da, arduraz, pertsuz eta kantuz, *Lantziritik... Etxalaira...* liburuan ageri duenez.

handi haiekin eskolan, eta aire hartzeetan ere!

Hori zen orduko 'pedagogia'.

Pedagogia militarra deitzen dut nik hori! Baina horregatik ez ziguten guri euskara galarazi. Frantsesez zerbait ikasi genukeen, baina gero kolegiara joanez, hobeki ikasi genuen herriko eskolan baino. Orduan, gure hizkuntza bakarra euskara zen. Herritarren artean euskaraz ari ginen, oztopo horiek denak errazki gainditzten genituen.

Kolegioa aipatu duzu.

Bai, eta gure etxean denak pasatu ginen, guti edo aski, kolegiotik. Batzuk, Hazparnerat, ni lehena. Hamar urteetan joan nintzen, igorri ninduten, nonbait, ni baitan apaizgaitasun zerbait ikusi zuen norbaitek, apaizak ala serorak ez dakit, eta familiari erran, behar ninduketela harat igorri. Gure bidea horrela egin dugu. Ondotik, beste bi haurridek ere bide bera egin zuten, baina ni baino gutixeago. Nik 26 urte arte segitu nuen bidea.

Zertan zen apezgaiaren euskal giroa, orduko kultura hartan?

Euskaldun anitz baginen, eta euskaltzale andana Hazparneko kolegioan. Euskal Herri ttipi bat ginen. Euskara gure hizkuntza zen, gure nortasuna, horrela sentitzen genuen, eta atxiki genuen. Hor zen Manex Pagola ere, eta taldea osatu genuen, euskaltzalea. Gero, Uztaritzen segitu genuen, gehiago, nortasun handiagoa ere bagenuen. Eta baziren apez euskaltzaleak ere, Piarres Lafitte, adibidez, kalonjea, eta hizkuntzalari handia. Bazen beste bat ere, laguntzen eta bultzatzen gintuen: Piarres Xarriton. Nik Lafitteren oroimena dut gogoan atxiki gehienbat. Aire hartzeetan biziki jostakina zen ikasleekin, sekulako solasa bazuen, istorio kontatzailea zen, irriz harrazten gintuen. Beti baginen hamar, dozena bat euskaltzale haren inguruan, euskaraz. Irriz hartzen ginen, kontatzen zuena irri egingarria baitzen, baina beraren irri egiteko moldea ere bai, eta harentzat ere maite genuen! Kar, kar...



Nola sendotu zen zuen baitan etxetik zeneramaten euskaltasuna?

Frantses munduak indartu zuen hori, segur naiz, zeren eta euskara ez zen erabiltzen irakaskuntzan, eta guk hori gaizki bizi genuen. Frantsesean ere ez ginen hain onak, behar da erran, ahal bezala ari ginen, eta, beraz, frantsesak berak euskaltzalegoa piztuarazi zuen gehiago. Manex Pagola, Joanes Borda, Beñat Sarasola... denak elkarrekin ginen Uztaritzeko kolegioaz geroztik. Kuadrilla. "Laukotea" deitzen genuen gure taldea.

Zer ondorio utzi dizute hamazazpi urte haiek?

Uste dut bide hori ez bagenuen egin, beharbada hargina izango nintzela, anaia bezala. Baina ez dut urrikirik bide hori eginik, zeren eta horrela gure kultura zabaldu dugu, anitz gauza ikasi dugu -gutxi atxiki, baina ikasi anitz! Kar, kar...-, eta Euskal Herriaren errealitatea bizi izan dugu, barneratzen joan da, gure baitan sartu da. Hamazazpi urtez.

1967an irten zinen Baionako seminariotik.

Bai. Lehenik Manex [Pagola] kanpo eman zuten, eta gero ni, aste-beteren buruan. Manex kanpo eman eta nire deskargua eman nuen, idatziz. Banindoan, nire maletarekin, seminario handitik, eta kanporatzean, beste alde batetik, Joanes Borda eta Beñat Sarasola ikusten ditut: "Zer ari haiz?". "Banoak. Eman diat nire deskargua, bukatu duk ene hemengo afera!". "Haugi, haugi gurekin, apezpikuarekin hitzordua badiagu, atera-bide bat atzeman ahalko diagu!". "Ez duk posible, baina joanen nauk, frogatzeko bada ere, ez dela posible erraiteko!". Apezpikuak errezibitu gintuen, eta gure kasua esplikatu genion.

Zer erran zenioten?

Euskal Herriko apaiz nahi genuela izan eta, beraz, euskarazko formakuntza ere nahi genuela hartu... Finitu genuelarik, apezpikuak frantsesez ihardetsi zigun: "C'est tout?" (Hori da guzia?). Eta orduan erran zuen gauza bat, enetzako aski izan zena: "En ce qui concerne la langue basque, je serai comme un mur!". (Euskarari dagokionean, harresi bat bezala izango naiz) Xutitu nintzen, eskua eman nion, eta agurtu: "Agur, monsinore, nik ez dut gehiago deus

egitekorik zurekin!". Eta joan nintzen, Joanes eta Beñat han utzirik. Apezpikuak "aldaketa psikologikoa" egitera igorri zituen biak, Frantzia behealde horretara, Cher eta Vierzon departamenduetako hiri ezberdinetara, urte batentzat, formakuntza segitzera. Itzuli zirelarik, gauza bera. Ikusi zuten ez zirela ideiez aldatu; beraz, beraiak ere kanporatu zituzten.

Bizi berria egin behar izan zenuen...

Hor heltzen zara, itsasoaren aitzinean bezala. Prestatua ez zara, eta besteak bezala egin behar duzu, lan bat bilatu, lanean hasi, eta gero, helburuak-eta aldatu: "Ni familia handi batetik heldu nauk!", eta familia bati buruz bideratzen zara. Gazteriarekin mendira ateratzen hasi nintzen, eta horrelaxe ezagutu nuen ene andrea. Maite genuen taldean mendian ibiltzea, ateraldia egin, eta, gero, edozein herritan ostatuetan gelditzen ginen eta kantuz aritzen ginen, gure kantu berriekin-eta. Sekulako giroa bizi genuen.

**Manex Pagolari
esker sortu zen Elkar.
Enbataren Goiztiri
argitaletxea gelditu zelarik,
Manexek ez zigun bakerik
ematen: 'Behar diagu
sortu argitaletxe
bat!'"**

Kantagintza berria hasia zen ordurako...

Soraa anaiak ari ziren, bai, Robles Arangiz. Gero, Ez Dok Amairu. Ezagutu genituen Mixel Labegerie, eta Lourdes Iriondo, eta denak. Piztualdi bat bazen kulturaren, eta sentitzen genuen bazela. Nik, bereziki, zeren eta maite nuen idazten hartzea, bertso gisako olerki batzuk egiten nituen ere, kazetari ere izan nintzen zenbait urtez, eta hori aitzin, seminarioan nintzelarik, *Zeruko Argia*-n idazten nuen, *Herria*-n ere bai... Idaztea maite nuen, eta, hor, senditzen nuen euskararen berpizkunde bat bazela. Pozik ginen parte hartzean.

ETA ere bazen.

Bai, haren piztea ere bazen Hegoaldean, eta eragina bazuen hemen. Ideia aldetik, erran nahi dut. Gazteria bat bazukeen, laguntzaileak bazituzkeen ere, iheslekuak... Denbora hartan, Baionako seminarioko zuzendariak -Ariztia, saratarrak-, erran zidan: "ETAren bidez baizik ez duzu pentsatzen!". Sobera atxikia nintzen euskarari, eta hor nebilen ni, Ipar eta Hegoaldea-eta. Ez zuen soportatzen ahal, gaixoak!

Normalki, euskal mugimenduan sartuak ginen. Baina kanturik gabe ez dakit hemen kultur iraultzarik egiten zen, eta politikoa beharbada gutiago. Enetako, kantuak sekulako eragina izan zuen. Kan-



ZAZPIRI BAI

"Zazpiribai eta Ortziken ikusgarriak mugimendu baten fruitu izan ziren. Zazpiribai sortu zen Iparraldeko eta Hegoaldeko kantarien arteko lanari esker. Ortziken, hiru urte geroago sortu zen, baina bi ikusgarrien berezitasuna izan zen bi aldeetako kantariak elkarrekin ari zirela, eta kantu berri, berritzaile eta Euskal Herri berrizalearen bidetik ari zirela".

HEGOALDEA

"Hegoaldera joan eta Guardia Zibila ikustearekin, Espainia ikusten dut. Ertzaintza ikustearekin, erdi-erdi, Espainiako legea baita han ere, ertzaina izanik ere. Zoritxarrez, muga hor da. Lagunen artean, han eta hemen, Euskal Herria ikusten dugu, baina kanpotik heldu den batendako, nahiz han nahiz hemen, oraino luzerako Frantzia eta Espainia da Euskal Herria".

Azken hitza

FRANTZIAKO ERREPUBLIKA

"Jadanik Errepublikaren hiru hitz handi horiek praktikan eman balituzte, iraultza genuke. Askatasuna! Baina horrek zuzentasuna galdegiten du, ontsalaz. Haurridetasuna!, nik ez baitut anaitasuna erranen, haurridetasuna baizik, gizon eta emazteak denak barnean hartzen baititu hitz horrek. Eta, bistan da, Berdintasuna! Pertsona denak maila berean, elkarren errespetuan".

taldiak antolatzen genituen –partaide nintzen antolatzaileetan–, eta gazteria biltzen zen. Hartzen ginen anitz tokitan antolatzen, kantariak Hegoaldetik ekarrazten genituen, beti, Iparraldekoekin batean, erakusteko hemengo jendeari: “Ikus, euskara bada Hegoaldean, euskaldunak dira han ere, gu bezala!”. Gure politika zen hori ere. Sekulako jendea higitzen zen. Kantuak egin du hemen politika-militantziak bezainbat lan. Ideien zabaltzen, herritasuna, euskaltasuna sentituz eta pozez biziartzten. Kantuaren bidez egin da hori dena.

Elkar argitaletxea sortzea zer izan zen?

Aitzineko bidearen segida! Lagunen artean sortu genuen Elkar, 1972an. Ordu arte egiten genuena egiten segitu genuen argitaletxea Baionan sortu genuelarik. Manex Pagolari esker sortu zen Elkar. Enbataren Goiztiri argitaletxea gelditu zelarik, Manexek ez zigun bakerik ematen: “Behar diagu sortu argitaletxe bat!”. Hasi ginen, izenak eman genituen, proposamen bat izan zen: Euskal Liburu eta Kantuen Argitaldaria, hots, Elkar. Zabal liburu-denda, berriz, Joseba Jaka eta Jokin Apalategik ireki zuten. Eta zenbait urte-





**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



ren buruan, han zen Jose Mari Sors ere. Nihaur ere geroago Zabal liburu dendako langile gisa sartu nintzen.

Joseba Jaka eragile handia izan zen bi aldeetan ere.

Zabal kultur elkartea 1972an muntatu genuen, eta bagenuen aldizkari bat ere, izen berekoa. Dendari zer izen eman hasi ginelarik, aldizkariarena eman genion. Hor elkartzen ginen denak: Battitta Larzabal, Jakeline Idiart, Joseba Jaka, Jokin Apalategi, Maite Idirin, Joxe Mari Sors, Paulo Iztueta... eta beste batzuk. Erasoak ere izan genituen, zartatu baitzuten Zabal liburu-denda. Lehenago, Mugalde denda zartatu zuten Hendaian, eta Nafarroa izeneko, berriz, Miarritzen. Baita frantses liburutegi bat Donibane Lohizunen ere.

Lehertzeak liburu-dendetan garai batean. Ondoko sasoian, GALen atakeak.

Zabal dendako Pannecau karrikan ezin bizia gertatu zen. Jende guti ibiltzen zen orduan. Aitzineko aldietan errefuxiatu anitz ikusten ziren ostatueta. GAL abiatu zelarik, denak ezkutatu ziren. GALen atentatua izan zen karrika horretako Les Pyrénées ostatuan ere. Sekulako beldurra sarrarazi zuten. Hori bukatu zen frantses gobernuak Iparraldean bizi ziren errefuxiatu andana bat beste alderat eraman zuelarik. Hori zen bi gobernuen arteko tratua. Bestela GAL ez zatekeen geldituko.

Gogotik saiatu zineten Baionan ikastola sortzen, eta ikastolari segida ematen.

Horrela bizi ginen gu, galdea zen lekura joanez. Hori zen gure militantzia, hori gabe ez ginen ontsa. Ene bizia zen hori, kultura behar zen antzinatu. Ikastolak sortu dira, beraz, behar ziren aitzina eraman. Eta, gero, lehenik Xalbador kolegioa

eta lizeoa Kanbon sortzea sekulako urratsa izan zen. Eta hor ere talde txiki bat abiatu zen. Baionan ireki zen lehenbiziko kolegioa, hamar, dozena bat haurrekin. Biziki guti. Hortik pasatuko ginen Xalbador ikastegira, eta, gero, jarraipena, lizeoraino. Auzolan sekulakoa izan da, hemen, Iparraldean berean, eta ere Hegoaldeko jendearekin, laguntzera etortzen baitzen.

Aipatzekorik bada laguntzera etorri zitzaizuen jendearen artean...

Bagenuen, bereziki, irakasle bizkaitar bat, Guillermo Etxebarría. Haren bidez, dozena lagun asteburuetan etortzen ziren Xalbador ikastegira gure laguntzera, eta hor bizi genuen sekulako giroa. Kasu berezi bat. Iparraldeko jendeak, ofizialek anitz lagundu gintuzten. Eta gero, faktura edo kontua galdegitean: “Ez, hori zuen laguntzeko da”. Uzten ziguten beren lana dohai-nik. Harrigarria. Elkartasun handia piztu zuen kolegio horrek. Hor ibili ziren Sarako Urbistondo anaiak, Henri Dutournier eta bertze batzuk... Anitz jende ibili zen gure laguntzen.

Erein zenuten haziak uzta eman du.

Bidea egin dugu, eginarazi dugu, eta arbola guziak bezala, gureak ere fruituak eman ditu. Gure lanak ere fruitua eman du, bestenaz ez zen jarraipenik izan. Eta ikusirik, gostarik gosta, nola hedatzen joan diren ikastolak kasik herri anitzetara Iparraldean —gure ametsa zen ere—, eta sortu diren kolegioak —bosgarrena eginen dute orain—, Sehaskaren eta ikastolaren zuhaitzak fruituak eman ditu, segur. Enetako, euskaldunarentzat, ontsalaz, hizkuntza da gure identitate ikur nagusia, euskara, eta euskararekin doan kultura, eta horri lotua den politika: erran nahi baita, Euskal Herriko politika. Horiek denak elkarri lotuak dira. Familia bera da hori dena. ●



Kazetaritzari gerra



DAVID BOU
KAZETARIA

Vladimir Putinek Ukrainaren aurka abiatutako “operazio militar bereziaren” hasiera gisa pasako da historiara 2022ko otsailaren 24a. Ez zaitezte beldurtu, autokrata errusiarraren eufemismo berbera erabili dut momentutan altzairuzko oihal berriaren alde batean eta bestean libratzen ari den guda komunikatiboa oso ondo adierazten duen adibidea delako.

Ez naiz ni izango gerra berri honen inplikazioak klabe geopolitiko eta ekonomikoan aztertuko dituen, horretarako badaude egiazko adituak eta pandemiaren beherakadarekin gairik gabe gertatzen ari ziren iritziemale-orojakile korroa. Errelatoagatik eta iritzi publikoaren kontrolagatik gauzatzen ari den bataila da esanguratsuena iruditzen zaidana.

Europako Batasunak (EB) Errusiaren aurkako neurri eta zigor paketea iragarri zuen, eta horien artean zegoen Russia Today eta Sputnik hedabideen emisioen debekua European, baita beren sare sozialetako eta hedapen plataformetako kontu printzipalen blokeoa ere. Maila komunitarioan aurrekaririk ez duen erabakia da, eta zuzen egiten dio eraso informatzeko eskubideari eta adierazpen askatasun eskubideari, propio egindako hedabideen zentsurari atea irekiz.

Egun batzuk beranduago, Josep Borrell EBko Atzerri Gaietarako goi ordezkariak Bruselatik iragarri zuen desinformazio kanpainetan inplikaturik zeuden aktoreak zigortzeko marko batean la-

Hortxe gaude batzuk,
zentsura kritikatzeko,
iturri guztiak irakurri
eta sinesgarritasuna
nori eman geure kabuz
erabaki nahi dugula
defendatzeko

nean ari zela. “Demokrazia informazioa erregaitzat duen sistema da”, zioen. Eta nik galdetzen dudana da: nork erabakiko du zer den egia eta zer gezurra?

Moskutik iristen diren berriek ere ez dakarte baikortasunerako gonbitik. Mundu osoko hedabide nagusietako kazetariak herrialdea utzi dute Putinek lege berri bat sinatu ostean, zeinak hamabost urte arteko espetze zigorrak ezartzen dituen “albiste faltsuak” zabaltzeagatik. Era berean, hedabide independenteak blokatuak izan dira, baita Facebook, Instagram eta Twitter bezalako sare sozialak ere.

Panorama samingarri horri gehitu behar zaio lekuan bertan lanean ari diren kazetarien hilketa, Brent Renaud estatubatuarrena kasu; 2014an Donbasseko gerra hasi zenetik hildako guxtienez hamar kazetarien zerrenda tragikoa handiagotu du Renaudek. Nola ez,

nire egiten ditut Hibai Arbide erreportariaren hitzak: “Kazetarien heriotzak ez dira gainontzekoenak baino garrantzitsuagoak, baina kamerarik gabe gerrak okerragoak dira mundu guztiarentzat”.

Preseski horregatik, jasanezina da ogibideko zati handi baten isiltasuna Polonian Pablo González atxilotu ondoren. González kazetaria da, eta inolako frogarik aurkeztu gabe leporatu dioten arren “espioitza”, inkomunikaturik dago espetxean, Espainiako Gobernuaren gelditasunaren aurrean –“kolaborazioarekin” ez esateagatik–.

Bien bitartean, hedabideek “korrespontsal” edo “ordezkari berezi” gisa aurkeztu dituzte hamarnaka freelance kazetari, baina beren kabuz egin behar diete aurre estaldura gastuei, lau txakur txikiren truke bizia arriskatu. Profesional zintzoak enkargurik gabeko axolagabe artean, zeintzuk gatazka eremu batera bidaiatzen duten beharrezko jakintzarik eta ezer berriren ekarpena egiteko aukerarik gabe, kaltetutako biztanleriaren baliabide urriak xahutzen dituzten bitartean sare sozialetako *like* eskukada baten truke.

Usteltasun horrek guztiak Arthur Ponsonby politikari ingelesaren esaldi ezaguna berresten du: “Gerra deklaratzeko denean, egia da lehenbiziko biktima”. Eta hortxe gaude batzuk, zentsura kritikatzeko, iturri guztiak irakurri eta sinesgarritasuna nori eman geure kabuz erabaki nahi dugula defendatzeko. ●

Beti halakoa



ANTTON OLARIAGA



BEA SALABERRI
IRAKASLEA

Errusia beti halakoa izan da”, batak borobil. Besteak baietz, “Errusia beti izorratzen”. Autobusean jarriak doaz bi gizonak, bata bestearen kontra mugikorraren pantailari begira. Iritzi handiak bi autobus geltokiren artean, Instagrameko harietan barrena. Gisa berean, hamarkadetan zehar, Iparraldeko herrietako ostatu zoletan debalde hastiatzen zen Alemania, kategorikoki eta definitiboki. Berdintsu.

Ukrainako eskualdeetako ezagutza hain gutxi genuen berriki arte, ez bada, ekialdeko hainbat lurralde bezala, egonkortasun politiko eskaseko gunea dela. Krisia bat-batekoa izan den bezala, bapatekotasun berarekin esnatu da norbanako arrunta Errusiaz hau dela eta hura dela, orojakile eta epaile, baina beti ere gogoeta sobera pusatu gabe.

Irudiak beste mende batekoak dirudite, baita elkarri egindako mehatxuek eta desprezioek ere. Alta, krisi geopolitiko hau biziki aberasgarria da beste gisaz XXI. mende honen osasun eskasaz erakusten duenarengatik. Ikasgai anitzetakoak izan dira azken asteak, horien artean bat nabarmentzekotan, azpimarratuko nuke zigor neurriena eta horien anbiguetate ikaragarria.

Lehendabizi, zigor neurri multzo horrek ez luke historian parekorik kausituko. Batetik izan duen zalutasunarengatik, bi aste barne indarrean jarri baitira; bestetik, ahobatezkoak eta ia mundialak izan baitira, kasik sobera nabarmenak; eta azkenik, izariarengatik, horien ondorioak errusiar jende xume guziari bezala, munduko gainerateko guziei ere eraginen baitie epe laburrean eta seguraski luzaz.

Bestalde, deskubritu dugu, lehenik, herri baten ontasunak, nahiz herri horretako herritarrenak, munduan zeharreko bankuetan kokatuak diren diru zamak baita beste gisako jabegoak ere, egunetik biharamunera identifikatuak eta lokalizatuak izan daitezkeela, baita konfiskatuak. Eta hori guzia horretaz nehor kexatu gabe. Hamarkadak dira paradisu fiskalak eta iruzurak salatzen direla eta ezin dela neurri bakar bat ere hartu, ez egitura ez aberatsen kontra. Eta hor, hamar egun barne, bat-batean, bahitzeak erabakiak eta gauzatuak dira. Irakeko, Siriako, Afganistango gerlen kasuan ez bezala, erraza agertu da SWIFT eta diru sare erraldioen bazter uztea Errusia, ordura arte ezinezkoa zirudien arren.

Bereziki aipatzekoa da beste hauxe: iheslariari ongi etorria egin dakiekeela agertu da. Harago, ez dela baitezpada arazoa ehun milaka jenderen exodoa xurgatzea eta kasu honetan Ukrainaren ohoragarria ere gerta daitekeela. Orain arte ez genuen sekulan hainbeste erreportaje ikusi telebista kateetan etorkinen harreraren espantatzeko. Ekialdetik lehenagotik migrazio oldeak gertatu izan zirenean, ez genuen gaur bezainbateko esku zabaltasun diskurtsorik entzun. Ez zen egon beltzak, magrebtarrak, txinatarrak, indiarrak hartzearen aldekorik.

Eta suzko oldar horretan zer erran gutxi eman dute jokamolde batzuek: neurri kulturalak edo. Han eta hemen artista errusiarrak programazioetatik baztertzen dira, antzerkiak, operak, balletak, kantariak. *Autodafé* usaina airean.

Gerla hau ez da bakarrik Ukrainakoa, ez bakarrik lurralde batzuetakoa. Gerla mediatikoa da, Instagramekoa, handien interesekoa, sobera inpulsi-boa, sobera ahobatezkoa, sobera kategorikoa, sorgin ehizetan bezala. Eta eskalada horretan ez da elementurik agertzen giroa lasaitze aldera. ●



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Ekonomia ez da gerra

Gerra inguruan, gerra gero eta hurbilago, gerra egunerokoan, gerra bizirauteko, zer da ekonomia ez bada gerra. Desjabetze, metaketa eta zapalkuntza harremanetan oinarritutako ekonomiara ohitu gaituzte, eta gerraren aurkako jarrera etikoz blai bagaude ere, normala iruditzen zaigu despareko harreman ekonomikoek sortzen dituzten gerrez inguraturik egotea. Beti aurkituko dugu super bilau bat nekrokapitalismoa onargarri egingo duena. Izan ere, ekonomia kapitalistaren balore hegemonikoak onartu ditugu, lehia, merkatua eta kapitala dira gure gizarteak gobernatzeko tresna nagusiak, horrek gerrak behar baditu ere. Zeren hori da ekonomia, ezta? Ez.

Bada garaia ekonomia kapitalista behar den bezala izendatzeko. Desjabetze, metaketa eta zapalkuntza harremanak oinarri dituen, agortutako eredu, bizitza guztia-rekin amaituko duena dekadentzia onartu aurretik. Hori gerra da, eta ez ekonomia.

Beraz, polarizazio garaiotan, onartu dezagun kolapsoa, amaiera. Ez dugu merkatuan aukerarik egingo, ez dugu gerrazale humanitarioaren alde egingo, ezta langileen bizkar metatutako boterea herritarren kontra gerra egiteko erabiltzen duenaren alde ere. Erdiko biderik ez dugu maite, amaiera da nahi duguna, bizitzak lurrean iraun dezan.

Elkarlaguntza oinarri duen harremanen lurraldea, gizabere kooperatiboa bizi den toki hori, beste dimentsio bat da batzuen-tzat, eguneroko errealitatea askorentzat. Elkartasun erradikalez eraikitzen dira harremanak bertan, baliabideak komunak dira, eta beharrak ekonomia moralak antolatzen ditu. Ekonomia, beharrak eta nahiak kolektiboki asetzeko autoeraturako tresnek egiten dute, berdinen arteko harremanen metaketa bidez. Ekologiak, feminismoak eta lan burujabeak zedarritzen dute lurralde komunala, harreman askeen eta konpromisozko loturen bidez. Bizitzarako ekonomia da. Ekonomia.

“Honekin guztiarekin bukatuko dugu, eta ez zaigu inoiz ahaztuko gauza eder txikienarekin eta onenarekin ahalik eta gehien gozatzea”, idatzi zuen momentu estuenetan Rosa Luxemburg burkide komunistak eta, beraz, gerraren kontrako militanteak. Guzti honekin amaitu, eta lurralde burujabeak eraikitzeko proiektuak sortzen jarraitu beharko dugu, behetik, lurretik hasita, bizitzak denontzat bizigarriak izan daitezen egunero. Harreman berriak saretuz eta burujabetzak landuz, kolapsoaren ondotik ere bide luzea dugu ekonomia berreskuratzeko, baina ez dago beste biderik oparotasuna denontzat izan dadin. ●

OHARRA: Aurreko astekarian (2.771 zenbakia) espazio honetan argitaratu zen Iñaki Muruaren artikuluak ez zeraman jatorrizko izenburua. “Arrakalak buruan...” da artikuluaren berezko izenburua, eta ez jarri zitzaiona (“Erakargarri edo libre?”). Barkamena eskatzen dugu akatsagatik.

Zoriontsu izan ginen lekuak



**CASTILLO SUAREZ
IDAZLEA**

Beti saiatu izan naiz zentzu bat ematen halabeharrari, maizegi hartzen nauen babesgabetasuna txikituko delakoan. Horregatik ez dit min handiegia ematen heriotzak, halabeharrez heldu den aldetik; alabaina, askoz ere arrangura handiagoa sortzen dit lagunak galtzeak. Horrelakoetan neure buruari errepikatzen diot ezin izan dudala ezer egin. Hurrengo urratsa da bere opariak botatzea eta argazkiak ezabatzeta. Ezer ez da aringarri, orde. Joan direnak ez dira inoiz erabat joaten; oztopatu egiten dute egiten ari naizen hori. Orduan nire bizitza betetzen dut gehiegi

ezagutu ez baina maitatzeko prest na- goen horiekin. Galdetuko balidate zer eskuratu nahiko nukeen orain ez du- dana, maitatzen utzi nautenei agur esa- ten ikastea erantzungo nuke zalantzarik gabe. Edo ni nintzen eta berriro izango ez naizen pertsona izateari uzten ikas- tea. Ez dakit bigarren aukerarik ema- ten. Oroitzapenak deserosoegiak dira irentsi ahal izateko. Hausturak dakarren zartatua ikusezina bezain mingarria da. Horregatik gorroto nuen udaro toki ber- berera joatea oporretan. Zoriontsu izan ginen lekuak ere desagertu egiten dira lehenago edo geroago. ●

Energia berdea?



IÑAKI BARCENA HINOJAL
EKOPOL ETA EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Zein da energiaren kolorea? Zergatik energia *berde* izendatzea? Hiztegiak dio energia dela sistema batek lan egiteko duen ahalmena, eta horrek ez omen du kolorerik. Baina guk jatorrizko iturriaren arabera, kolore bat jartzen diogu energiari. Beltza edo grisa esaten diogu baliabide fosiletatik (ikatz, petrolio, gasa) lortzen denari. Hidrogeno arrosa da uraniotik eratortzen dena eta hidrogeno horia nahastutako iturrietatik (fosilak eta berriztagarriak) lortzen duguna. Eta berdea litzateke baliabide berriztagarrietatik datorrena. Ulertzekoa da publikoaren haserrea Europako Bata-sunak (EB) 2021an modu trantsitorioan gasa eta energia nuklearra berdetzat izendatu zituenean. Hau trikimailua!

Paradoxa energetikoa. Frantziak ez dio energia nuklearrari uko egin nahi eta Alemaniak Errusiako gasaren dependentzia handiegia du. EBeko bi buru/motore nagusiek "berdetasun" hori inposatu dute trantsizio energetikoaren bidean arnasa hartzeko. Eta kea saltzeko ere bai! Paradoxa txundigarri horrek Europa bere energia-sistemaren ispilu lotsagarriaren aurrean jartzen

Ez soilik Europako
gobernuak,
korporazio
energetikoak ere
presaka ari dira
energia berdeen bila
negozio energetikoa
mantendu
ahal izateko

du: klimaren mende alde batetik, eta petro-estatu autoritarioetatik ekarritako erregai fosilen dependentzian, bestetik. EB Errusiaren energia-bezero nagusia da oraindik; EBko gas naturalaren %46 eta petrolioaren %25 inguru Errusiako Federaziotik etorri zen 2021ean. Eta erretolika berdearen gainetik ez dugu ahaztu behar: EBk %25etik %40ra handitu ditu gasen inportazioak azken hamar urteetan.

Energia nuklearraren alorrean Ekialdeko European ugaltzen ari diren proiektuak (Bulgarian eta Hungarian adibidez) eta uranioaren merkatu nuklearra Errusiaren kontrolpean daude. Ukrainaren inbasioaren ondotik zentral nuklearren inguruan bizi izandako tentsioek ez dute berri onik ekartzen; hots, nuklearra ezin da etorkizuneko energia iturria izan.

Orain presaka. Ez soilik Europako gobernuak, korporazio energetikoak ere presaka ari dira energia berdeen bila negozio energetikoa mantendu ahal izateko. Energiaren Nazioarteko Agentziaren ustez, 2025erako petrolioaren erauzketa %20ra jaitsiko da kasurik onenean, eta halakorik ez da ikusi II. Mundu Gerratik hona. Antonio Turie-
lek dioenez, egungo energia trantsizio-ereduaren arazoa ondokoa da: energia bizia, energia berriztagarriak alegia, fosilizatu nahi dela; naturaren erritmoak jarraitzen dituen eta lurralde osoan barreiatuta dagoen energia, merkatu kapitalistaren erritmoak jarraituko dituen energia kontzentratuan bihurtu nahi dela. Eta bide horretan berdetasun bar-
karra dolarrena da. ●



XAPOKETAN

PUZZLEA

Euskal Herriko ekosistemak eta animaliak ezagutzeko 100 piezako puzzlea

Iñaki Sanz eta Eñaut Aiertzagüena

Eskailerak: **azoka.argia.eus 943 37 15 45**

NEURRIA: 43 x 27 zm




15€



EUSKARA, BIHOTZETIK EZPAINETARA



Barruan daramazu kirol zaletasuna,
onena emateko gaitasuna, ahaleginduz gozatzekoa.
Eta barruan daramazu euskara ere,
kirola barrutik bizitzeko.

*Euskadi,
auzolana*



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

“Hezkuntzan, jangelekin eta garbiketarekin egin bezala, digitalizazioan ere pribatizazioaren alde egin du Jaurlaritzak”

Iñigo Gebara

Euskal Herriko ikastetxeetako ikasle, irakasle eta gurasoen artean partekatzen den informazio publiko zein pribatuaren gehiengoa AEBetako multinazionalen eskuetan dago, eta haien software itxien bitartez kudeatzen da. Google Drive, Gmail, Hangouts, Meet, Chrome, Classroom, Calendar... Beren buruaren jabe izan nahi dutenentzat ez da abiapuntu polita, baina bada egoera hori irauli nahi duen jendea. Horien artean nabarmentzekoa da Hezkuntzan Librezale taldea. Iñigo Gebara taldekidea da eta otsailean EAEko legebiltzarrean izan zen Hezkuntza lege berriari ekarpenak egiten.

 **AXIER LOPEZ**  **DANI BLANCO**

Gaur egungo egoera nik azaldu dudana bezain gordina al da?

Bai, oso. Euskal Herriko ikastetxe publiko eta pribatu ia guztietan Microsoft edo Googleren aplikazioak erabiltzen dira. Oso ondo asmatu dute enpresa horiek hezkuntzaren “negozioan” sartzen.

Hezkuntza publikoak, diru publikoarekin ordaindutakoak, jabetza publikoak sustatzen ditu. Nola utzi diegu prozesu horretan negozio pribatuei barruraino sartzen?

Beste arlo askotan bezala, azken gobernuak pribatizazioaren alde egin dute, jangelekin edo garbiketarekin egin duten bezala. Digitalizazio prozesuan ere berdin jokatu dute. Adibidez, Microsoften kasuan Jaurlaritzak diru askoko kontratu handiak sinatu ditu.

Azpikontratazioa bizitzaren esparru askotan oso zabalduta badago ere, agian hezkuntzaren azpiegitura informatikoan ez dugu horrela ikusi.

la kontura gabe gure bizitzetan txertatu dira multinazional horien zerbitzu eta programak. Tresna asko eskaintzen digute "doan". Herritarrok uste dugu ez dugula ezer ordaintzen, baina ematen dizkiegun datu pertsonalak eta jasotzen dugun publizitatea dira ordaina. Egunerokoan enpresa horien zerbitzuak hain daude zabalduta, ezen hezkuntzan ere naturaltasunez asimilatu ditugu. McDonald'sek ikastetxeko jantokiak kudeatuko dituela irakurriko bagenu, jende guztia harrituta agertuko litzateke. Google eta Microsoft molde bereko enpresak badira ere, irakasleok, gurasoak eta hezkuntza komunitate osoak oro har, irentsi egin ditugu. Arazo larria da.

Egoera iraultzeko teknologia burujabetzaz mintzo zarete. Hezkuntzan zer esan nahi du horrek?

Software itxi horiek (erabiltzaileek nola funtzionatzen duten jakin ezin dutenak) datu oso sentiberekin egiten dute lan, tartean ikasle adingabeenak. Notak, oharrak, gurasoekiko komunikazioa... Lainoa ez da existitzen, eta egun AEBetako multinazionalen ordenagailuetan daude datu horiek.

Teknologia burujabetzak esan nahi du hori guztia guk geuk kudeatzea. Software askeak bakarrik bermatzen dizu gardentasuna -programak nola funtzionatzen duen edo zer egiten duen gure datuekin jakin ahal izatea-. Horrez gain gure datuak enpresa pribatuen menpe uztea baino, hezkuntza komunitatearen kontrolpeko zerbitzarietan edo Eusko Jaurlaritzarenetan jartzea hobesten dugu.

"Software librea, Linux, tresna ezezagunak, dena hankaz gora jarri behar... hori mobida handia da", entzungo

zenuten behin baino gehiagotan.

Bai, askotan. Badago arrazoi nahikoa argudio hori ez dela egia esateko. Eskoletan martxan diren proiektu askotan demostratu da. Nire eskolan dena Linuxekin egiten da eta ez dago inongo arazorik. Ez dago aditu izan beharrik horrelako tresnak erabiltzeko. Gu aldagaitetara egokitzen gara, eta ikasleak are azkarra-go. Multinazionalenak bezain erabilgarriak dira plataforma libreak, eta aukera gehiago eskaintzen dute.

Diru publikoa, kode publikoa?

Nire iritziz, hala beharko luke. Dirutza publikoa inbertitzen da aplikazioetan, eta herritar guztientzat irekiak beharko lukete.





IREKIA

Digitalizazioa hitz magiko bilakatu da. Orain denak behar du digitala izan. Hezkuntzan digitalizazio prozesua oso azkarra dela esan zenuten Legebiltzarrean eta, gainera, planifikatu gabea izan dela. Bost puntu eraman genituen digitalizazio eraginkor, euskaldun eta integrala lortzeko abiapuntu gisa. Goi esferetatik digitalizazioa planteatzen denean beti berrikuntza gisa egiten dute, tresnak digitalizatzeko hutsagatik onura ekartzen duelakoan. Argi dago hori ez dela horrela. Ordu asko pantailen aurrean egoteak gazteei eta ez hain gazteei eragiten dizkien arazoen inguruko ikerketak badira. Oinarritzko gaitasun batzuk lantzeko ahalmena kentzen digu dena era digitalean egiteak. Nongo eta Silicon Valley-ko nagusiek ere hala ikusi dute eta haien seme-alabak eramaten dituzte digitalizatu gabeko eskoletara. Digitalizazioak aukera batzuk ematen ditu, baina hemen plangintzarik gabeko digitalizazio txarra egin dute. Dirudienez, hezkuntza akordio berrian ere

“Microsoftek eta Googlek oso ondo asmatu dute Euskal Herriko hezkuntzaren ‘negozioan’ sartzen”

gero eta gehiago digitalizatu nahi dute. Hori akats larria da. Aztertu beharko genuke noraino digitalizatu behar den hezkuntza. Bi urteko umeek beharrezko al dute tableta eskolan? Onuragarria baino kaltegarria da.

Horrez gain, kezkatzen gaitu dirua nola xahutzen den material berrian. Orain Europako funtsak iritsi direnez,

ez dakit zenbat milioi gastatuko duten ordenagailu berriak erosten, hiru lau urterako bizitza dutenak. Ez da eredu jasangarria. Donibane Lohizuneko ikastolan esperientzia polita egin dute, ordenagailu zaharrak birgaitu eta Txiki Linux sistemarekin jarri dituzte martxan.

Zuen ekarpenetatik zerbait hartu al dute kontuan?

Sorpresaz hartu dugu gure ekarpen batzuk lege berrian kontuan hartu izana, baina ez da nahikoa. Oso era lausoan jasota daude. Gauza bat ala kontrakoa egiteko atea irekita utzi dute.

Poliki-poliki eztabaida zabaltzen ari da, baina, halaber, gero eta traba gehiago jartzen dute. Chromebook-ak iristen ari dira eskoletara eta hor ezin da ezer instalatu. Erabat itxiak dira. Jaurlaritzak esaten dizu Microsoft edo Google erabili behar duzula, ez dizu beste aukerarik ematen. Beraz, “tranpatxoak” egiten ibili behar dugu, nola edo hala, plataforma libreak erabili ahal izateko.

Baliabide aldetik, zer beharko genuke aldaketa bideratzeko?

Giza baliabide aldetik hutsune galanta dago. Ez dago prestakuntza berezirik. Eskola bakoitzean zer nolako digitalizazioa behar den erabakiko duen pertsonaz gain, alde teknikoaz aztertu eta ezarriko duena ere beharrezkoa da. Gaur egun, hori pertsona bakarrak egiten du eta izan daiteke gorputz hezkuntzako, musikako edo tokatu zaion edozein irakasle, ordenagailuekin pixka bat ibiltzea gustatzen zaiolako, besterik gabe.

Kasu askotan jende horrek sustatu du Google. Zergatik? Errazena delako edo errazen jarri dioten aukera izan delako. Jaurlaritzak edo Berritzeguneak Google edo Microsoften produktuen gaineko formakuntzak eskaini dituztelako, adibidez. Irakasleak ez du errurik.

Oso ahaldunduta egon behar duzu eredu itxi horretatik ateratzeko.

Bai, oso informatuta. Ez da gai bat kailean pil-pilean dagoena. Hori da oztoporik handienetako bat. Jendea ahaldundutza da gure helburuetako bat.

Beste edozein motatako proiektu publikotan lizitazioak izaten dira, proiektuak aurkeztu eta irizpide batzuen arabera aukeratzen da

“Euskal Herrian plangintzarik gabeko digitalizazio txarra egin dute”

bata ala beste. Gai honetan badirudi ezetz, Microsoft eta Google ateak parez pare irekita sartu direla.

“Hecha la ley, hecha la trampa” (legea eta tranpa batera datoz), diote erdaraz. Mahai gainean ez da beste aukerarik izan.

Erabat politikoa da hautua, beraz. Bai, argi eta garbi.

Hemengo eredutik oso bestelakoak diren praktikak badira. Adibidez, 2019an Alemaniak debekatu zuen Google, Apple eta Microsoften plataformak eskoletan erabiltzea edo berriki Bartzelonan egiten ari direna. Azal dezakezu azken hori? Seme-alabek eskolan Google halabeharrez erabili behar zutela-eta kezkatuta

zeuden Bartzelonako guraso batzuk elkartu ziren eta harremanetan jarri ziren Xnet elkartearekin. Kataluniako Gobernuak Googlerekin lanean jarraitzea erabaki zuenez, azkenean Bartzelonako Udaleko atea jo eta finantzaketa lortu zuten software askean oinarritutako plataforma bat sortzeko, beraien beharretara egokitua eta zerbitzari seguruetan ezarria. Software horrekin programa pilotua egin dute Bartzelonako bost eskolatan. Esperientzia ona izan denez, datorren urtean beste eskola batzuetara zabaltzeko asmoa dute eta horretarako diru gehiago aurreikusita dago.

Google eskolan ordezkatzeko 140.000 euro jarri ditu Udalak. Huskeria dirudi.

Jaurlaritzak lizentzietan urtero askoz gehiago ordaintzen du. Horrek argi uzten du dirua ez dela arazoa. Arazoa dira borondate politikoa falta, ezjakintasuna, batzuen interesak...

Bartzelonako plataforma hori egin da dago, librea da eta denon eskura dago.

Bartzelonako proiektuan ere elikadura burujabetzatik ezaguna zaigun kontzeptua azaldu zaigu: 0 kilometro.

Plataformaren garapen informatiko guztia Bartzelonako enpresek egin dute. Euskal Herrian ere badugu enpresa asko software librearekin lan egiten duena, gai hauetan aditua dena. Horrelako proiektuek ekonomia lokala sustatzen dute: gure beharrak asetzeko inguruko eragileak, kooperatibak edo enpresak erabiltzea. Alde horretatik, dena onura da.

Orduan, Euskal Herrian zer egin? Zeintzuk dira urratsak horrelako proiektuak martxan jartzeko?

Goitik eta behetik eragin behar da. Bide guztietan. Hezkuntza legean eragiten, gizartean mezua zabaltzen, informazioa ematen, hezkuntzan zer arazo potoloa dugun ikusarazten... Gero eta guraso gehiago hurbiltzen ari zaigu taldera. Gurasoek zerbait nahi badute lortu, indarra egin behar da, aldaketa hortik etorriko delako. Kezka duen edonork guregana jo dezake, Hezkuntzan Librezele Telegram kanal irekia-ren bitartez edo hezkuntza@librezale.eus emailen. ●



TABERNEI BOIKOTA

Nortzuek helduko diote estatxari, getariarrek ala turistek?

Txikia bezain bizia da Getaria, Gipuzkoako kostako herria, baina abendutik hona aldaketa batzuk izan dira Parte Zaharrean: ostalariek prezioak igo dituzte, eta gazteek eratutako Sos herritarrak ekimenak boikota egin die. Ia lau hilabete daramatzate tabernetan zentimo bat gastatu gabe, prezioen igoera "neurrigabea" salatzeko. Boikotaren atzean dagoena kontatzeko bildu gara gazteekin; aldiz, ez dute aurrez aurre elkartu nahi izan Getabat ostalarien elkarteak eta Haritz Alberdi EH Bilduko alkateak, eta idatziz erantzun dizkigute aferari buruzkoak.

 LEIRE ARTOLA ARIN

Batek baino gehiagok pentsa dezake gazteak alkoholagatik soilik mobilizatu direla, baina izatez urak gainezka egiteko falta zuena izan da. Olatua Kale Nagusira iritsi da, eta ostalariak, udala, eta herritarrak busti ditu; plaza-ekarra ditu turismoaren gorakadaren gaineko eztabaidak, eta bistan utzi du azken hamarkadan herri ereduak aldaketa izan duela. Zergatik? Sos herritarrak taldekoen esanetan, herria turismoari emana dagoelako, bertakoak alboratuta. Getabat elkartearen iritziz, berriz, aldaketa horren ardura herritarrek dute, ez kanpokoek: "Datozen belaunaldiek dute arrantzarekin, base-riekin eta inguruarekin aurrera egite-

ko erronka, herritarrona da estatxari eusteko erantzukizuna".

Haritz Alberdi alkateak ere estatxari heltzeko deia egin die "guztiei", baldin eta nortasun handiko herri bizia izaten jarraitu nahi badute. Hain zuzen, Getariako Udalak "Heldu estatxa, getariarren txanda" kanpaina abiatu zuen 2020an, pandemiaren ondorioak sufritu zituzten herriko saltoki eta ostalaritza establezimenduak berpizten laguntzeko. Getariarrek bertakoa kontsumitzera bultzatu zituzten, estropadetan abiatzerakoan patroiak tinko eusten duen soka, estatxa, lematzat hartuta: "Estatxari ondo eutsi eta arraunean bezala talde lanean urratsak emateko", laburtu zuen alkateak kanpainaren xedea. Gazteei ondo

iruditzen zaie ostalariei laguntzak ematea: "Ahal izan dugunean lagundu dugu, Getarian egin dugu bizitza, eta ez genuen espero neguan prezioak igotzea". Itsasoa asko mugitu da ordutik, eta gazteek adostu dute beste norabide batean arraun egitea: "Heldu karterak" lema-pean, ostalariei eskatu diete prezioak lehengoratzeko; bitartean ez dira tabernetara joango.

Sos herritarrak taldean antolatu dira 20-30 urte arteko gazteak, eta hainbat ekintza eta hitzaldi antolatu dituzte abenduaz geroztik. Lehen bilkuran 60 bat lagun elkartu ziren, "inoiz baino gehiago", eta azpimarratu dute boikotaren harira saretu direla gazteak. "Bilera eta hitzaldi horietan konturatu gara herri eredu

hau ez dela guretzat sortutakoa; jendeak ohartarazten gintuen horretaz, baina orain arte ez gara konturatu". Onartu dute alkohola izan dela mugimendua piztu duena, baina aurretik kuadrilletan aipatzen ziren ezinegon askori buruz hausnartzeko probestu dute egoera. Gerora begira, Getarian bizitzeko aukera izan dezaten orain "zerbait egiteko beharrari" erantzun diote.

TABERNEI BOIKOTA

Sos herritarrakeko partaideek haxe izan dute kezka iturri: "Prezioak proportzio horretan igotzen badituzte, zer gertatuko da hemendik urte batzuetara?". Izan ere, garestitzea ulertzen dute, jakitun direlako jendarte osoaren gastuak ere handitu egin direla, baina salatu dute igoera neurrigabea izan dela, eta herrian turista gutxien dagoenean egin dutela. "Aste Santuan igo izan balituzte 10 zentimo, seguruenik ez ginakeen kexatuko. Baina ez da horrela izan, momentu desegokian egin dute, eta ez dira 10 zentimo izan, baizik eta 30 edo 50". Oro har %15eko edo %20ko igoera izan dute edariak; besteak beste, garagardo kañak 2,5 euro balio du, zuritoak 1,5 euro, konbinatuak 7 eta ur botila handiak 3.

Hori ikusita, segituan egin zuen elkarretaratzea Sos herritarrak taldeak, eta jarraian kalejira egin zuten herritik. Karro batean alkohola eta musika zeramata irten ziren kalera abenduan, tabernen aurrean aldarrikatzeko prezioen igoeraren aurka zeudela. Garai batean halaxe egin zuten Durangoko eta Oñatiko txikiteroek, protesta gisa marmitan ardoa hartu eta kalean edan, harik eta ardoaren prezioa lehengoratzeko lortu zuten arte. Tabernetara joan ezinda, Sos herritarrakeko kideek Getariako beste guneko batzuetan antolatu dituzte hain-

bat jolas, mahainguru, pintxopote eta bazkari; esaterako, nabarmendu dute Gaztetzeari bizitza eman diotela.

Getabat elkarteko ostalarien ustez boikotak egoera "desatsegina" eragin du: "Bakoitza libre da norbere aldarrikapenak egiteko, baina kasu batzuetan aldarrikapenak egiteko formak harritu gaitu". Prezioen igoerari dagokionez, arrazoitu dute lau urte zeramata prezioak ukitu gabe, eta gogorarazi dute igo egin direla lehengaien eta argindarraren prezioak. Azpimarratu dute azken "eguneraketarekin" inguruko herri askotako prezioen pare geratu direla Getariakoak.

*Karro batean
alkohola eta musika
zeramatela irten
ziren kalera gazteak,
tabernen aurrean
protesta egiteko*

PINTXOAK, TXAKOLINA ETA GASTROTEKAK

Sos herritarrak ekimenekoak kexu dira taberna guztiak berdinak direla, hau da, pintxoak eta txakolina saltzen dituztela, batzuk gastroteka estiloan, eta herritarrek ez dutela aukerarik otordu xume bat egiteko. "Donostiako Parte Zaharreko eredua, uste genuena hona ez zela iritsiko, iritsi da". Ostalariei galdegin diete antolatzekeo herritarrei bideratutako ekintzak, "lehen bezala". Kritikatu dute aberatsentzat eginiko herri bilakatu dela, eta, era berean, Kale Nagusian ko-





mertzio bat izatea "diru-iturri izugarria" dela, turismoari esker: "Pandemiagatik ez balitz, haizea popatik zuten negozio horiek".

Eusko Jaurlaritzako Enfokatur Turismoaren Behatokiak 2019ko azterketan zera ondorioztatu zuen: Gipuzkoa-ko kostara joandako turista bakoitzak egunean batez beste 147 euro gastatu zituen gastronomian eta ardoan (Getarian ezaguna den txakolina barne); hain zuzen, EAEra datozen turisten %87,5ak gastronomiari lotutako jarduerak egiten ditu. Getariako turismo gida guztietan ageri da eskaintza bera: parrillan erretako arraina, mariskoa, txakolina, eta Elkanori eta Balenciagari buruzko bisitak, itsasoz eta mendiz inguratutako parajeetan.

Ezin da ahaztu 2.839 biztanleko herria dela, Eustaten 2021eko datuen arabera, eta biztanleriaren zatirik handiena kaxkoan biltzen dela, saltoki eta ostalaritza establezimendu guztiak dauden tokian. Sos herritarrak taldekoek deskribatu dute udako egoera: "Getariarrok sentitzen dugu herrian soberan gaudela, Kale Nagusian jendetza egoten da baina ez duzu inor ezagutzen; kotxez beteta egoten dira bazter guztiak". Argi dago COVID-19ak gogor jo duela turismoa, baina apurka sektorea berpizten ari da. Getariako Turismo Bulegoak 2021ean

Sos herritarrak ekimenak kritikatu du Getaria turismoari emana dagoela, eta bertakoak soberan sentitzen direla

22.340 bisitari erregistratu zituen; hala ere, lagin horri beste batzuk gehitu behar-ko litzaizkioke turisten argazki osoa eta erreala izateko.

NORTASUNAREN ZUTABE: ARRANTZA ALA TURISMOA?

Esanak esan, Getabat elkarteak dio beti egon direla "herritarrengandik gertu" eta herriko ekimenetan presente. Getariarrei ekarpena egiten dietela argitu dute: "Lehen sektorearekin ere zuzen-zuzeneko lotura dugu, herriko arrantzaleekin, txakolinzaleekin, baserritarrek, kontserbagileekin... Gure etxeetara datozenei herriko produkturak eskaintzen saiatzen gara". Getabaten hitzetan, tu-

ristak "pozez" hartzen dituzte, herritar ugarik irabazten baitute haiei produktuek salduta. Halaber, diotenez Getariako nortasuna transmititzeaz arduratzen dira, eta "kezkatuta" daude transmisio hori gazteek etengo ote duten: "Gazte askok ez du nahi gure nortasunaren zutabe diren ogibideetan lan egin".

Jakina denez, zutabe horietako bi dira arrantza eta baserria, biak ala biak sakrifizio handiko lanbideak, gainbeheran daudenak. Eusko Jaurlaritzak eta Getariako Udalak antolatu dituzte jardunaldi batzuk, adibidez, arrantza suspertzearen gainean. "Berandu zatozte! Hiltzen utzi duzue", leporatu diete instituzioei Sos herritarrakeko kideek. "Sare konpontzaileak erabiltzen ari zarete turismoa erakartzeko, baina sare konpontzaileak jada ez daude, zeren bultzatu baituzue tabernak irekitzea eta diru fabrikak egitea, eta utzi dituzue hiltzen baserria eta arrantza".

TURISMOAREN IRABAZI EKONOMIKOAK

Hamarkada honetan bereziki egin du gora turismoak Euskal Herrian, eta Getarian pisua hartu du jarduera ekonomiko horrek. Alberdi alkateak zehaztu duenez, herriko familia eta pertsona askoren sostengu ekonomikoa da turismoa, lanpostu zuzenak zein zeharkakoak sor-



SAN SEBASTIAN TURISMOA



SOS HERRITARRAK

tzen dituen. Hortaz, azpimarratu du turismoaren gaia "konplexua" eta "erpin askokoa" dela. Era berean, Getabat elkarteak dio ostalaritzako sektoreak lanpostu asko eskaintzen dituela: "Gustora hartuko genituzke gazteak gure *etxeetan* lanean, baina tamalez beste lehentasun batzuk dituzte". Gazteei galdetuta ea herritarrek turismotik dirua lortzen duten, hauxe erantzun dute: "Gutxi batzuek. Udarako edo Aste Santuko aldi baterako lanak izaten dira, baina ez du urte osorako ematen. Lan *troteroak* dira, batez ere gazteek egiten dituztenak".

Beraz, turismoa herriko ekonomia-erentzat onuragarria da ala ez? Erantzun argigarriagoa ematen du Bizilagunekin desazkunde turistikoaren aldeko donostiarren plataformak: "Turismo jardueraren onurak kontatzen dizkigutenean, motore ekonomiko gisa eta enplegu sortzaile gisa aurkezten zaigu. Arretaz begiratzuz gero, ordea, enplegu eta jarduera ekonomiko horren kalitate eskasa eta hauskortasuna azpimarratzekoa da, batetik. Eta bestetik, nabarmena da jarduera turistikoak inbertsio publiko izugarria eta politika publikoen erabateko baldintzatzea eskatzen duela. Enplegu batzuk sortzen ditu, gutxi batzuei irabazi handiak ematen dizkie, baina aurrekontu publikoetan dago horren guztiaren oinarria. Turismoarekin ira-

Getabat ostalarien elkarteak kezka du ea herriko nortasunaren transmisioa gazteen belaunaldiek etengo duten

bazten dutenen mesedetan moldatzen dira hiriak, erakargarri kulturalak sortzen dira, azpiegitura erraldoiak eraiki... eta guztien zergekin ordaintzen dira".

ZENBAT BURU, HAINBAT ABURU

Tabernetako prezioak igotzeak iritzi kontrajarriak eragin ditu Getarian, bata bestearen aurka jarritz, eta badirudi itsasoak ez duela baretzeko aurreikuspenik. Sos herritarakeko kideak herri eredia iraultzeko elkartu dira, eta isiltasuna izan dute aurrean, bai udalaren bai Getabaten partetik; aipatu behar da gazteez gain adin gehiagotako herritarrak joan direla ekimen batzuetara, gaiak interesa

piztu duen seinale. Gainera, taberna batekin adostasuna lortu eta prezioak jaitsi dituztenez, hor boikota baztertu dute.

Getabateko ostalariak, dena den, gazteen urruntasuna salatu dute, esanez herri txikia izanik arazoak zuzenean hitz eginda konpondu behar direla; ez daude gustora mugimenduarekin. Alkateak ez du polemikan esku hartzeko premiarik ikusi orain arte, baina ulertzen du gaia "erpin askotatik" jorratu behar dela. Zer egin behar du udalak Getaria turismoak jan ez dezan? Alberdik dio horretan ari direla: "Gure txikitasunean hainbat egitasmo bultzatzen ari gara, bi ideia oinarri hartuta. Bata, egiten dugun gauza bakoitzak getariarren ongizatean eragitea, eta, bestea, 2020ko turismoari buruzko hausnarketatik ateratako ondorioak ezartzea". Gazteak kritiko ageri dira udalarekin, uste dutelako kontraktasunetan eta inertzietan sartzen direla, eta horrela jarraituz gero arriskua ikusten dute "nahi gabe" Ipar Euskal Herriko kostako herri turistikoaren antzerako bilakatzeko.

Getarian dioten bezala, estatxari heldu beharko dio norbaitek, itsaso zakarretan ere arraunean segitzeko. Izan ere atzean geratu zen estatxa arpoiari lotuta botatzearen erabilera, getariarren aberastasun iturri baleak harrapatzea zeneko aldian. ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Balentziaga, titulu ofizialik gabeko goi-joskintza

Xàbia (Alacant), 1972ko martxoaren 24a. Cristobal Balentziaga Eizagirre jostun eta moda diseinatzaile getariarra hil zen 77 urte zituela. Erretiroa lau urte lehenago hartua zuen, 50 urtez lanean aritu ondoren eta goi-joskintza-ren gainbehera betean.

Errentagarria izateari utzi arren, Balentziagak beti egin zuen goi-joskintza eta ez zen *prêt-à-porter* jardueran aritu; serieran ekoiztutako arropen salbuespen bakarra egin zuen: erretiroa hartu zuen urtean bertan, 1968an, Air Franceko hegazkin zerbitzarien uniformeak diseinatu zituen.


Hil eta mende erdira, Balentziagaren ondarea Getariako museoan dago bate-tik, arazoez eta irregularitasunez inguratuta sortu zen museoan. Eta, bestetik, Balenciaga etxean, azken 20 urtetan beste diseinatzaile batzuen eskutik ospea berreskuratu duen markan. Baina Balenciaga ez dago gaur egun goi-joskintzan aritzen diren etxeen zerrenda laburrean, Balentziagak ez bezala, soilik *prêt-à-porter* egiten baitu enpresak.

Kontua da getariarra bizirik zela ere bere moda-etxea ez zela zerrenda eskusibo horretan egon, Chambre Syndicale de la Haute Couture edo Goi-joskintzako Ganbera Sindikaleko kide ez zela izan, alegia. Hasieran, ez sartzea erabaki zuen,



ez zielako elkarteko eskakizun zorrotzei men egin nahi. Aurrerago, 1950eko hamarkadan, sartzeko ahaleginak egin zituen, baina bere askatasunari eta arau propioei uko egin gabe. Ganberak bildumen aurkezpenarako egutegi zorrotza ezartzen zuen eta, 1956an, prentsa aurrean aurkezpenak nahi zituenean egiten hasi zen Cristobal, ikusgarritasuna irabazteko eta kopiak saihesteko. Ganbera zapaldu eta berehala bota zuten.

Eta, hala ere, Balentziaga eta goi-joskintza estuki loturik daude. Christian Diorrek “gu guztion maisua” zela esan zuen. Coco Chanel-ek, berriz: “Bera da jostun bakarra, hitzaren zentzurik zintzoenean; beste guztiak moda diseinatzaile hutsak gara”. Eta, azkenik, Hubert de Givenchy ikasle eta lagunak oso garbi zeuzkan, aitorten ofizialak gorabehera: “Balentziaga goi-joskintzaren sortzailea izan zen”. ●



Willendorffeko venusa Italiatik etorri zen

Duela 30.000 urteko estatuatxo ezaguna oolita izeneko harriz egin dago. Willendorf herrian aurkitu zuten, Austriako Wachau haranean, eta inguru haietan ez dago halako oolitarik. Vienako Unibertsitateko ikerlariak mikrotomografia konputerizatua erabili dute venusaren materiala aztertzeke, eta ondorioztatu

dute harriak ziurrenik Italia iparraldean duela jatorria, Garda aintzira inguruan. Ez dakite Alpeak inguratu ote zituzten edo mendilerroa zeharkatzeko gai izan ote ziren garai hartan, baina, adituen ustez, litekeena da hainbat belaunaldi behar izatea 700 km inguruko bidea egiteko. ●

BATZEN HARRERA SISTEMA



Batzen proiektua joan den urrian aurkeztu zuten Donostian. Irudian, Andoni Zulaika eta Esti Beraza azalpenak ematen.

Denok ez ditugu lanerako aukera berdinak

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Inklusio soziolaborala bultzatzen duen proiektu berria sortu da Gipuzkoan: Batzen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Inklusio eta Babes sarean dauden gazteak enpleguratzeko sistema da. Gazte migratuak eta bertakoak daude sare horretan -500 gazte inguru daudela diote erakundeko arduradunek-; alde batetik, babesgabetasun egoeran dauden 16-18 urteko adin txikikoak, eta bestetik, gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden 18-23 urtekoak.

Diotenez, errealitatea da 23 urtetik aurrera babes sarearen laguntzarik gabe geratzen direla, eta emantzipatzeko zailtasunak izaten dituztela. Adin horretara heltzerako lan-munduan ate batzuk irekitzeko aukerak sortzea da helburua, eta arlo desberdinetako enpresak gonbidatu dituzte proiektuan parte hartu eta gazte horiei aukera soziolaboralak ematen lagundu dezaten.

Hala azaldu diote ARGIAri, Lasarte-Oriako egoitzara bisitan etorri diren Esti Beraza Batzeneko koordinatzaileak eta Andoni Zulaika Zabalduz kooperatibako inklusio soziolaboralerako arduradunak. Kooperatiba ho-

rren bidez ari da Aldundia proiektua kudeatzen.

Esan beharrik ez dago enplegu baten pertsona bati benetako autonomia ematen diola eta emantzipaziorako ia pauso beharrezkoa dela. Horretarako sortu dute "harrera enpresen" tresna. Enpresek, konpromiso maila ezberdinekin, euren ekarpena egin dezakete gazteek enplegua lortzeko prozesuan. Adibidez, bisitak eta hitzaldiak antolatu ditzakete, arlo horretan interesa duten gazteek lehen pertsona eza-gutu dezaten enpresa horretan egiten dutena; praktikaldiak hitzartu daitezke; lan aukerak aztertu; euren beharretara formaturik dauden gazteen lan-poltsetatik kontratazioak egin... Ez dago formula bakarra eta pausoak ere pixkanakakoak izan daitezke.

ARGIAtik oso ondo ikusi da gazte horiei halako aukera eta akonpainamendua ematea, eta Batzen harrera sistemarekin elkarlana abiatzea erabaki da. Pausoz pauso joango gara, momentuz gure lana ezagutaraziko zaie hala nahi duten gazteei, eta, bide batez, zer gutxiago espazio txiki honetan proiektuaren berri ematea baino. ●

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



"Horrelako proiektu independenteak defendatu behar direlako eta kalitate oneko albisteak eta informazioa eskaintzen dituelako ARGIAk"

Tuterako Aimar

"Komunikabide eukalduna delako eta askatasun osoz inongo presio interesik gabe egiten duen bakarra iruditzen zaidalako"

Zestoako Inaxio

"Euskal argitalpenek jarraitu dezatela bermatzen laguntzeko"

Portugaleteko Begoña



AGENDA

Ez gara kolonialistak, baina...

Axier Lopez kazetariaren hitzaldia, Elkanoren Mundu Biraren V. mendeurrenaren oinarri:

🕒 **Martxoaren 30ean** 19:00etan

♥ **Hernani** Biteri Kultur Etxea

Txori Urdinak

Espetxearen erretratu bat Santi Cobos presoaren ahotik

Zigor Olabarriak liburua aurkeztuko du Atxarte Salvador abokatu eta Itziar Moreno euskal presoarekin batera:

🕒 **Martxoaren 31n** 19:00etan

♥ **Bilbo** Bira kultur gunea

UDABERRIA NOIZ ARRAIO HASTEN DA?



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Udaberria berrasmatu beharra daukagu. Txoratzen gaitu; udara datorrelako ilusioak, oporren ispilatzeak, arropa lodi handiak kentzeak, elektrizitatearen faktura jaitziko delako lilurak eta abarrek, udaberriaren usain soilak, txoroaldi punttua ematen digute. Txoroaldia bai, ez eroaldia. Behin poeta batek galdetu zidan zer alde zegoen txoroaren eta eroaren artean. Erotzea burua joatea edo galtzea da, txoroak zer galdurik ez dauka. Eta hori, urte garai honetan txoroaldi kirasño bat usaintzen da. Bakoitzak bere eroa bizi duen bezala, txoroaldiak ere bakoitzarenak eta bakarrak dira. Udaberriak ere bai. Hemen bakoitzak bere udaberria bizi du. Udaberriko odolberritzearen txute hori noiz sentitu edo somatizatzen dugun dago koska.

AEBetan eta Kanadan, marmota batek esaten die udaberria noiz etorriko den. Auzoko batek esaten zuen sahatsa (*Salix caprea*) loratzean hasten zela. Abertzale estu-estuarentzako Gernikako haritza (*Quercus robur*) pujatzean hasiko da. Santuzaleek Kandelari eta San Blas egunei begiratzen diete, baita birjinari gehien jartzen dioten lorea, kala (*Zantedeschia aethiopica*), noiz loratzen den ere; baita “udaberri-lorea” eta “ostaiska”



Azeri-buztanaren lorea.

ere esaten zaion sanjose lorea (*Primula veris*) noiz loratzen den ere. Udaberri astronomikoaren ondoren (eguzkia Aries puntutik igarota) lehenengo ilargi beteak markatzen duen aste santuaren gurtzaileek, erabiliko dituzten ereinoztaren (*Laurus nobilis*) edota palmondoaren (*Phoenix dactylifera*) lorealdiari begiratuko diete. Basozaleak, landatzeko landarea, sabia edo txirpia muntegietan noiz amaitzen den. Horizale eta arantzazale masokistak otearen (*Ulex spp.*) loraldiari jarraituko dio. Uztargileak, sahatsaren izerdiari eta pagoaren

(*Fagus sylvatica*) esnatzeari. Patxaranzaleak, elorri beltzaren (*Prunus spinosa*) loraldi zuri ikusgarriari. Txertatzailak udare (*Pyrus communis*), mizpira (*Mespilus germanica*) eta abar ugaltzeko asmoz, elorri zuriaren (*Crataegus monogyna*) izerdi gorabeherei. Mendizale bukolikoak pagadien birberdetzea ikusi nahiko du. Sagardozaleak txotxaren sasoia ixtearekin batera loratzen den sagastia (*Malus domestica*) izango du jopuntu; esaerak honela dio, “martxoko lorea, ez balitz hobea; apirilekoa urrea; maiatzekoa ezer ez baino hobea!”. Diruzaleak, pinuaren (*Pinus radiata*) beldarraren prozesioak noiz bukatzen diren. Ardo zomorroak, mahastien (*Vitis vinifera*) inausketako zaurietako negarraren hasiera. Itsuak, zozoaren eta txantxangorriaren bakartsaio berriak.

Nik udaberria gero eta azkarrago hasten delako susmoa dut. Nire aurtengo udaberria iaz abiatu zen: abenduko solstizioarekin etxeko mimosa (*Acacia dealbata*) loratu zenean; eta magnolia tulipa (*Magnolia x soulangeana*), lilipak (*Narcissus spp.*), azeribuztana (*Equisetum telmateia*), mailukiak (*Fragaria vesca*) eta baita irasagarrondoa (*Cydonia oblonga*) ere; zuhandorraren (*Cornus sanguinea*) kimua ikustean eta abar. Zeurea? ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Honakoa pasatzen zaigu tipulekin: Duela 3 urte hasi ginen tipula plastikoarekin jartzen. Lehen urtean primeran. Ale ederrak eta sanoak. Azken bi urteetan berriz, urtero lekuz aldatuta noski, usteldu egiten dira. Ale dexente txikiagoak eta asko baratzean bertan usteltzen hasiak kanpotik. Ateratakoan ikusten da zainak dituzten lekuan har txikiak dituztela.

📍 Iraiz Zubeldia Mujika

Usteldura hori zergatik sortu daitekeen aztertu behar da. Aipatzen dituzun har horiek izan daitezke errudunak. Harrak hozka egiten duen tokian gaitza sartzen da. Beste animaliatxoren batek ere sustraiak jan dakizkieke. Hark egindako zaurietatik sartuko litzateke usteldura sortzen duen onddoa. Sataina, luhartza... Begiratu ea galeria tankerako zulotxorik ikusten duzuen sailean.

Beste aukera bat da hezetasun handiegia izatea: plastikoa jarri delako izan daiteke, edo ura pilatzen den tokia delako,

sustraiaren hasierako parte hori usteldu daiteke. Pentsa tipulari hezetasuna ez zaiola zipitzik gustatzen. Usteldura guztiak, azken beltzean, hezetasunak ekartzen ditu. Edozein eratar, saila lehortzeko lurra harrotu, ildo-bizkarrak edo muntoak (40 cm inguru altuerakoak) egin eta bere bi aldeetan landatu, eta abar.

Kontuz gehiegi ongarritzearekin ere. Tipulari ez zaio ongarrria gustatzen, eta baldin bada, oso ondo ondua edo luartua. Ondo egin gabekoak ahul haztea dakar eta gaitzetarako samurragoa izatea. ●

GOXOA.EUS

EUSKAL HERRIKO EKOIZLEEN PLAZA DIGITALA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Mondragon Unibertsitateko ekin-tzailletza graduko hiru ikaslek duela hilabete pasatxo abiatu-tako proiektua da Goxoa.eus plataforma. Gorka Lizaso, Mikel Arbulu eta Aitor Martin dira bultzatzaileak, eta Euskal Herriko azoka digital gisa aurkeztu dute egitasmoa: “Hiru urtez aritu gara nekazaritza mundua ikertzen, instituzioekin biltzen, hurbileko azokak bisitatzen... eta tar-tean Kalifornian ere egon ginen hilabetez. Han ikusi genuen ekoizpen ekologikoaren bueltan salmentarako plataforma hauek martxan zeudela duela hogeitau urte baino gehiagotik”, azaldu du Lizasok. Gurean zegoen hutsunea betetzeko asmoz etorri dira.

40 EKOIZLE BAINO GEHIAGO

“Banaketa kate justuagoen falta sumatzen genuen, eta lehen sektoreak digitalizazio moduko bat behar zuela ere bai”, adierazi du Lizasok. Hain zuzen, sektorearen transformazio digitalaz asko entzun zuten ikerketa prozesuan zehar, baina praktikan, mugimendu handiegirik ez zegoela ikusten zuten. Horrela, Hego Euskal Herriko 40 bat ekoizlerekin harremanetan jarri eta haien produktuak plataformaren bidez saltzea proposatu zieten.

Plataforma erabiltzeagatik ez dute inolako kuotarik ordaindu beharrik, eta haiek dira prezioak erabakitzen dituztenak. “Behin haiena kubrituta, plus txiki bat jartzen diogu guk proiektura bideratzeko”, dio. Banaketa, webgunearen kudeaketa, komunikazioa eta bestelako lan guztiak hartu dituzte hiru kideek haien gain.

Lau izenondo jarri dizkiote bultzatzaileek Goxoa.eus-i: bertakoa, jasangarria, justua eta erosoa; azken batean, bezeroei elikagaiak modu ahalik eta erosoenean eskaintzea baita asmoa. “Herri batzuetan ez da azokarik izaten, beste batzuetan azoka egon bai baina herritar guztiek ez dute bertaratzeko aukerarik”. Batez ere belaunaldi gazteen artean erostaketak egi-



teko ohiturak aldatu direla jakitun, eskaintzak egokitzeko beharrari erantzun nahi diote, beraz.

BANAKETAK GIPUZKOA OSOKO ETXEETARA

Erosketa osoa bertatik egiteko aukera eskaintzen du plataformak: barazki freskoak, fruituak, esnekiak, ogia, haragia, pasta, olioak... 170 bat produktu dituzte eskaintzan guztira, eta ekoizle bakoitzaren informazio fitxa ere osatu dute webgunean, argazki eta guzti: “Garrantzia eman nahi diogu hurbileko harremanari, elkar ezagutzari eta jendeak ekoizle onena baloratzeari”.

Gutxienez 25 euroko erosketa egin beharra dago, eta Gipuzkoa osoan etxeko banaketa egiten dute proiektuko hiru kideek. Astelehen, astearte, ostegun eta ostiralean egiten dute banaketa hori, baina horretaz gain, Donostiako Tabakaleran ere jaso daitezke erosketak. Aurrera begira, puntu gehiago irekitzea aurreikusten dute. “Kontziente gara agian ez dela halakoak martxan jartzeko garairik onena, baina itxura ona hartzen ari da, eta espero dugu hemendik bizimodua atera ahal izatea eta inguruan eragin positibo hori ere zabaltzea”, amaitu du. ●

EUSKAL HERRIKO AGENDA

www.bizibaratzea.eus



Sendabelarrek dakitena

Garbiñe Larreak liburua aurkezteaz gain sendabelarrei buruzko hitzaldia emango du.

🕒 **Apirilak 2** 11:00etan.

📍 **Azkoitia** Emakumeen liburu azokan.

🕒 **Apirilak 5** 18:00etan.

📍 **Muxika**



Bizi baratzea

Jakoba Errekondok *Udaberria, lurraren esnatzea* hitzaldia emango du.

🕒 **Apirilak 22** 18:00etan

📍 **Muxika** Zubieta erroten.

Zure herrian liburu hauen hitzaldia antolatu nahi?

Garbiñe Larreak sendabelarrez edo Jakoba Errekondok baratzeaz gakoak emango dituzten hitzaldiren bat antolatu nahi baduzu, idatzi bizibaratzea@bizibaratzea.eus helbidera eta berehala jarriko gara zurekin harremanetan.

ASIER ITURRALDE 'GASTÓN'

Ilustratzaile eta komikigilea

"Espazio asko uzten dut landu gabe, ez zait gustatzen orrialde osoa marraztea"



Bilboko taberna batean egin dugu elkarrizketa, non bestela. Ez, ez gaude Beti Berdin-en. Taberna hori fikziozkoa da, baita Irizar herria ere, Asier Iturralde *Gastón* ilustratzaile donostiarrak propio sortuak buruan zituen istorioak kokatzeko. Hasieran interneten eta ostean komiki batean jaso ditu, bazter guztiak tronpatu dituen pandemiaren erretratu humanoa egiteko.

Duela bospasei urte hasi zen Iturralde komiki-zintak interneten publikatzen. Sei bineta dituzte gehienek, Instagramek eskaintzen duen formatura egokituak, eta kokagune bera, Irizar herriko Beti Berdin taberna. Haren jiran dabilta dozena erdi lagun, tabernaria eta ohiko hainbat bezero, *Gastón* bera tartean. Komikiak maiztasun nahikoa jakin batekin argitaratzeko ohitura hartua zuenean, ditzosozko pandemia heldu zen. Guztion bizimoduak, kolpetik irauliak. Horren lekuko da *Beti Berdin taberna*. *Koronabirusaren garaian*, 2020ko martxotik abendura arteko istorioak biltzen dituen liburuxka.

Iturraldek "betidanik" marraztu ditu komikiak, baina "denbora piloa" eskaini behar zaiola dio. "Sartzen dituzun orduak aintzat hartuta,

errentagarritasun txikiena emango dizun lanbidea da. Diseinuaren mundua hobe dago, publicitate lanak-eta. Hura ere asko prekarizatu da, baina komikigintzarena... galbidea da".

Heldu zenion halere erronkari.

Aurretik komiki lehiaketa batzuetara aurkeztua nintzen, eta horietako batzuk irabazi nituen, baina sentitu nuen unea zela urrats bat harago joateko. Pandemiaren testuinguruan sortutako diru-laguntza bat jaso eta halaxe hasi nintzen, astean istorio bat publikatuz interneten, euskaraz eta gaztelaniaz, ondoren liburuan biltzeko asmoarekin.

Beti Berdin tabernan kokatu dituzu pertsonaiak.

Hasiera batean, donostiarra izanik, han kokatu nahi nuen Beti Berdin.

Oso zorrotza naiz ordea, eta istorioak benetako lekuetan kontestualizatzeko, adibidez Jacques Tardi frantziarrak egiten duen bezala Pariseko bazterrak marrazten dituenean, asko mugatuko ninduke. Apur bat zorotua nago gauza horiekin. Donostian gertatuko balitz, eraikinak, iskina guztiak, zehatz-mehatz marraztu beharko nituzke. Azken finean, edozein herri eta taberna ziren baliagarriak niretzat, edozein irakurle identifikatuta sentitzeko moduko istorioak direlako. Taberna bat aukeratu nuen gustukoak ditudalako, bi ardorekin jendeak errazago astintzen du mingaina [barrez]. Tabernak dira sozializatzeko lekurik gogokoenetakoak, eta pandemiaren erdian interesgarriak zitzaizkidan hamaika argumentu sortzen ziren.

Garai gogorretan sortuak izanik ere, guztiek dute umore puntua.

Hasieran agian nahi nuen sortu zerbait sakonagoa, serioa, nolabait esatearren, baina azkenean beti ateratzen zait umorea. Bertsoak sortzea bezalakoa izan da prozesua, sei binetatan sartu behar nuen istorio bakoitza. Txistea bururatzean horra moldatu behar duzu orrialde osoa.

Hiru koloretan egin dituzu ilustrazioak: beltza, zuria eta horia.

Tinta beltza eta horia baliatu ditut soilik, zuriz utzitako tarteez gain. Niretzat erreferentzia handiena Sempé da, *Nikolas Txiki*-ren egilea besteak beste; izugarri gustatzen zait, eta agian horretatik ere badu nire estiloak, zurtasuna esaterako. Espazio asko uzten dut landu gabe, ez zait gustatzen orrialde osoa marraztea.

Marrazteko moldea aipatuta, diseinuaren munduan-eta, zer dago orain pil-pilean? Gehitxo al da euskal estilo bat badagoela esatea?

Lehen agian bazegoen, *Ipurbeltz*, Olariaga... Iruditeriak bazuen nolabaiteko hari bat, baina orain dena dago hain globalizatua, ilustrazio bat ikustean ez dakizu zein sortzailek egin duen, estiloari dagokionez behintzat. Iturri beretik edaten dugu denok: internet. Estiloak, gainerakoak bezala, modan jarri eta badoaz. Orain bogan daude forma planoko ilustrazioak, eta erabiltzen dituzte postabulegoek, banketxeek, aseguru-etxeek... Garai batean berriz, argazkiak baliatzen zituzten bereziki, agure maitagarrien irudiak-eta. Lehen, banketxe batek be-

rehalakoan erabiliko zuen ilustrazio bat! Baina argazki batek gehiegi hitz egiten du, eta askok jotzen du ilustrazio mota horretara, dena planoa eta kolore argikoa, laranja, horia, urdina. Zerbait berri-tzailea atera arte.

Zaila izango da berrikuntzarik egitea.

Tira, beti egin daiteke zerbait apurtzailea. Bakoitzak bere bidea jarraitu behar du. Zure ahotza baldin bada zeurea ba-

karrik, zuri hots egingo dizute enkargu baterako. Denok egiten dutena egiten baduzu ordea...

Diozunez, publizitatean baloratuago zaudete komikigintzan baino.

Bai, eta halere hasi nintzenean baino diru gutxiago irabazten dut orain. Digitalizazioak asko erraztu du mundu horretan sartzea, lehen gehiago zuen artisau-lanetik, abilidadea izan behar zen. Orain aldiz, nola esan, famatuagoa egin



Beti Berdin taberna. Koronabirus garaian plazaratzeko 'Gastón argitalpenak' sortu du Iturraldek. Bilbon zuen estudioan ageri da argazkietan; lekualdatu egin da orain, Iturritza kaleko 13.era, eta lokala egokitzeo obren erdian harrapatu dugu. Lantokia ez ezik, erakusketak eta aurkezpenak egiteko espazioa ere izango da.

da, arte eskola piloa dago, eta ez dago hainbeste jenderentzako lanik. Hasi nintzenean internetik ere ez zegoen, eskuz egin behar zen guztia. Bezeroak enkar-gua ematean deitzen nion argazkilariari, marraztu beharreko objektu, pertsona tipo edo eszenaren eredu bat izateko. Eta ostean, marrazkia eskaneatzera eramane behar nuen leku konkretu batera. Orain nire gailuekin editatu egin dezaket, eta 'Control+Z' daukat gainera [barrez]. Zer gertatzen da? Bezeroak badaikiela 'Control+Z' daukazula, eta sarriago eskatzen dizu gauzak aldatzeko.

Hitz egin dezagun komikiez. *Beti Berdin*-ez gain, bi album ilustratu egin dituzu: *Etxe honetan Aintzane Usandizagarekin* (Pamiela, 2019), eta *Itsas haizea dabil Junkal Lertxundirekin* (Elkar, 2021).

Lehenbizikoarekin Etxepare Saria irabazi genuen. Proiektua sortu zen BIKO-TEKA tailerretan [Galtzagorri elkarteak antolatua Iruñeko Udalarekin elkarlanean eta Etxepare Sariaren laguntzarekin]. Egitasmo polita da. Elkartzen dituzte gidoigile bat eta ilustratzaile bat, haurrentzako liburu grafiko bat egiteko helburuarekin. Aintzanek eta biok bertan ezagutu genuen elkar, egin genuen bi orrialde zituen proiektua eta gustuko genuenez Etxepare Sarira aurkeztu genuen. *Itsas haizea dabil* ilustratzeko eskaintza argialetxetik heldu zitzaidan, Junkalek ezagutzen zuen jada nire lana.



Euskal Irudigileak elkarteko presidenteordea da Iturralde. Sektoreko sortzaileei ikusgarritasuna ematea dute helburu, baita laguntza eskaintzea ere, kontratu, lizentzia edota lehiaketen inguruan.

“Digitalizazioak asko erraztu du diseinuaren munduan sartzea, lehen gehiago zuen artisau-lanetik, abildadea izan behar zen. Orain aldiz... ez dago hainbeste jenderentzako lanik”

Alde komertzialari erreparatuta, gurean izan al da aldaketarik urteotan? Alegia, komikiak presentzia edota ospe handiagoa duela sumatzen al duzu?

Bai. Komikiak liburu-denda “normalean” saltzen dituzte egun, eta nobela grafikoaren kasuan zer esanik ez. Lehen ziren edo umeentzat edo frikientzat. Orain aldiz konturatu gara dela kontzeptuak eta mezuak helarazteko mediorik onenetakoa, eta ari dira piloa promozionatzen.





'Gaston', gazte prakazabal hura

Txikia zenean Iturralleri izugarri gustatzen zitzaizkion André Franquin marrazkilari belgikarrak sortutako Gaston Lagaffe pertsonaiaren abenturak, eta haren ize-na bereganatu zuen. Lehen istorioa 1957an publikatu zuen Franquinek *Le Journal de Spirou*-n, Charleroioko Eskola ordezkatzan duen aldizkarian, urte luzez Tintinen lehiakide izana, trazu argiagoez ezaugarritzen duten Bruselako Eskolaren ordezkaria hura. "Ohartzen bazara, Tintinen ko-

mikietako marrazkiak, pertsonaiak-eta, lerro-bakarrarekin eginak daude, siluetak bailiran", azaldu digu Iturralldek. "Eta ez dute itzalik. Charleroioko Eskolaren inguruan dabiltzanek, aldiz, itzalak marrazten dituzte, arras-toekin bolumenak sortu, pintzelak gehiago baliatu... Ez dira 'zikinagoak', baina Tintinen kasuan arrasto guztiek lodiera bera dute; aldiz, Asterixen kasuan, esaterako, aldatuz joaten dira. Diotenez nire estiloak Tintinen antza du, baina ez dakit nik..."

'Txistu' euskarazko lehen komikiarekin lotua

Noiz edo noiz hitz egin dugu ARGIA *Txistu*-ri buruz, euskarazko lehen komikiaz, eta elkarrizketatu dugu (2.706. zenbakian) Amaia Urrea, argitalpen horren sustatzaile nagusietakoa izan zen Abdon Gonzalez de Alaizaren hereniloba. Hain justu, Urrearen lehengusua da Iturralde. Madrilen sortu zuten *Txistu* 1927an, unibertsitate ikasle zenbaiten eskutik, eta ARGIA-rekin batera argitaratu ziren hamasei zenbaki, hamabostero. Iturralde saiatu den arren Gonzalez de Alaizari buruzko informazioa lortzen, etorkizunean agian zeozer argitaratzeko bere figuraren inguruan, esan digu apenas dagoela deus, "galtzailleen taldekoa" izanik, Gerra Zibilean bere ondasunak lapurtu edota erre egingo zituztelako. Bien bitartean, Beti Berdin ardatz izango duen 130 orrialde inguruko komikiarekin ari da lanean, zeina Harriet argitaletxearekin plazaratuko duen.

Gauza batzuk kontatzeko liburu bat astunegia egin dakiok jendeari, baina komikiak baliabide gehiago dauka, osagai bisualak, eskemak, mapak... denetarik sar dezakezu, eta aukera daukazu eduki sakonak, demagun Afganistango gatazka sozio-politikoak, modu nahikoa "arinean" kontatzeko.

Nobela grafikoak aipatu dituzu. Gauza desberdina dira horiek eta komikiak?

Niretzat ez dago alderik, etiketa bat besterik ez da errazago saltzeko. Uste dut publiko orokorrak komikiak lotzen dituela super-heroiekin, edo bilduma franko-belgikarrekin, normalean pertsonaia beraren inguruko 48 komikiz osaturiko horiekin, denak igualak formatuari dagokionez. Eta esango nuke "nobela grafikoak" deiturarekin saldu nahi dutela produktu bat desberdina: liburu autonomoa, autokonklusiboa, formatu hertsirik ez duena, malgugarria orri kopuru, tamaina, estetika eta koloreari dagokienez. Baina izan, horrelakoak betidanik izan dira! Uste dut mugatu egin nahi dutela: hau eleberri grafikoa da eta Tintin ez.

Esan duzunez, zenbait gairi buruzkoak kontatzeko tresna egokia dira komikiak.

Lehen ia dena fikzioa bazen, orain gai sozialak-eta gehiago eramaten dira komikira. Esaterako, Lucio Urtubia anarkistari buruz jakiteko komikia irakurri dezakezu, derrigor jo behar izan gabe

eleberri edo saiakera batera. Modan daude gisako autobiografiak, gai errealistagoak, emakumeen inguruko kontakizunak, eguneroko kontuak... Hori guztia zoragarria da.

Ikastetxeak kontziente al dira komikiak izan dezakeen balioaz, hainbat gauza irakasteko?

Ikastetxe batzuetan badakit lantzen direla. Aurreko batean Etxebarriko institutuan izan nintzen tailerra ematen. Literatura klaseetan komikiak irakurtzen dituzte, pentsatzen dut irakaslearen arabera dela kontua. Pasa den hilean Paco Rocaren *Los surcos del azar* komikia [Nazismoaren aurka borroka egin zuten Espainiako soldadu errepublikanoen buruzkoa] irakurri zuten Etxebarriko ikasleek, eta ostean egilearekin berarekin telematikoki hitz egiteko aukera izan zuten. Gazteek gustuko dituzte komikiak, gai "sakonak" beste modu batean azaltzen dituztelako. Irakasleak esan zidan: "Hauek erotuta ere ez dute nobela bat irakurtzen!". Agian gehiago erakarriko ditu mangak, baina bestelakoak ezagutzen dituztenean gustura irakurtzen dituzte.

Zentzu horretan, irakasleek aukera dute ikasgai konkretuak transbertsalki lantzeko. Esaterako, Historian ari badira 36ko Gerra Zibilaren ingurukoak lantzen, Literatura klaseetan gertaera horri buruzko komikiak irakurri ditzakete, gaiak gehiago jakin eta bide batez ikasleak komikigintzara hurbiltzeko. ●



LIBURUA

Beira ikusezina



BEIRAZKO KANPAIA

SYLVIA PLATH

(ITZULTZAILEA:

GARAZI ARRULA RUIZ)

TXALAPARTA, 2022

AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI

Argitaletxe askok uko egin zioten *Beirazko kanpaia* liburuari, txolina eta arina zelakoan. 1963an argitaratu zen lehen aldiz, Victoria Lucas ezizenez sinatuta. *Beirazko kanpaia* eleberria izan zitekeen, baina autorearen bizitzatik oso gertu dagoen kontakizuna izanik autobiografikoa dela esan genezake.

New Yorken egonaldi bat egiteko aukera du Esther protagonistak modako aldizkari batean irabazitako lehiaketari esker. Protagonistak poeta izan nahi du, eta liburuaren hasieran horretarako aukerak dituen emakume gazte baten egunerokotasunaren testigu izango gara. Poliki-poliki eta Estherren barne bakarriketaren bidez bere mundua nola narrasten den ikusiko dugu.

Alde batetik, garaiko emakumeei eskatzen zitzaizen rolaekin bat egiten ez duelako gertatzen da hori: berak idatzi egin nahi du, bidaiatu. Eta behin baino gehiagotan esaten duen bezala ez du ezkondu nahi, emakume libre izan nahi du. Beste alde batetik, gizonetik eta emakumetik jendarteak duen moral bikoitzak erraietaraino eragiten diolako: “Ezin nuen jasan ideia hura, emakumeak bizitza aratza izatea eta gizonak, aldiz, alde bikoia, alde bat aratza eta bestea ez” (113.orr).

Praktikan eta pentsaeran errebeldea eta azpiraezina den protagonistak ez du garaiko jendartean bere lekua topatzen eta depresioa izan daitekeena deskribatzen du. Psikiatriko pribatu batean eta elektroshock terapia jasotzen amaitzen

du Estherrek. Gainbeherak emozionala eta pertsonala ematen badu ere Estherrek garaiko genero rolen eskaerekin duen gatazka erakusten digu.

Zaurgarriak, delikatuak diren gauzak babesteko erabiltzen den objektuari esaten omen zaio “beirazko kanpaia”. Kasu honetan protagonista mundutik aparte eta babesgabe dagoenaren sententzia ekartzeko balio dezake metaforak. Erakuslehoan kristal batekin babestuta begiratu dezakegun hori bistartzeko.

Martxoan argitaratu du Txalapartak Sylvia Plath *Beirazko kanpaia*, Garazi Arrula Ruizen itzulpenean. Zortekotzat dut nire burua obra esanguratsu hau lehen aldiz euskaraz irakurri ahal izan dudalako. Obra feminista, sutsua eta apasionantea. Eskerrik asko. ●



MUSIKA

Belarra ez da berriro haziko?



GÁLDER IZAGIRRE


IKER BARANDIARAN

Matxet" Altolagirre zakur zaharra da; odolean darama beti aurre-
ra begiratzearena eta ezohiko
proposamenak sortzen ditu, betiere ka-
litatezkoak, oso zainduak. Bere DNAn
daude hain askotarikoak eta era berean
apurtzaileak izan diren Jousilouli, Naiz-
Roxa, Anai-Arrebak... eta orain Sega
Sound Killers. Abentura honetan ere
aparteko bidelagunak ditu, esperientzia
gordin eta aberatsetan zailduak: Izaera,
Lionhead eta Deskode, besteak beste.

2019an jarri zen martxan SSK, igaro
ahala belarra hazteko baimenik ematen
ez duen zapalgailu elektronikoa. Baina
martxa hartuta zeudela, ditzosozko pan-
demia etorri eta Portugal Txiki estudio-
laborategian babestu ziren. Babestu eta

sormena borborrean jarri; dena bat. Han
irudikatu zuten hamarkadatan eraikita-
ko musika eszena hondoratuko zela eta
galera horren dolua eraiki zuten haiek
dakiten bezala, musikaz eta hitzez. Eta,
horretarako, eszena honetan zeresana
eman duten ahots asko batu dituzte.

Arnasik ez da elektro-industriala te-
klatu oso ilunekin Chico Tornado eta
Alaine Salterain lagun; *Dolu* hardco-
reari keinua egiten dion -Meltdown-
industrial jostaria; *Lux bella* Ainhua
Mertzerok eta Aintzane Gamizek argi-
tzen duten techno zerutierra; *Boom* H.
Lekter konplize -nor bestela?- 90eko
rock gogorrera bidai amiltzua; *Neon*
kills Zuriñe Hidalgo jantzi vintage eta
tribalarekin elektronika dantzan. Ho-



DOLU

SEGA SOUND KILLERS

PROMOMUSIKA, 2022

riei jarraika, *NR* Zaloak soula txerta-
tzen dion hit techno apurtzailea; *Sega*-
k labeldun raggamuffina -Juanxo vs
Fermin- dauka plater nagusi, nahiz eta
doinuz garatu eta garraztu egiten den;
eta *Bihotzak iluntasunean* drum&bass
eta elektro melodia sarkorretan oina-
rritzen da, Okene-ren gozamenerako.
Bitxia da, baita ere, Sara Zozayak xuxur-
latu eta goxatutako *Excalibur*. Segidan
dator Margak gidatutako *Your number*
is one elektro-techno-rock-garbigailua;
Matxet rapean eta haginka egiten ari-
tzen den *Shake it!* elektro-rock amo-
rratua; eta akabera ematen diote *Love*
dantzagarriarekin Marta Caballero eta
Gorka Urraren laguntzaz. Barka bezate
elektronika adituek! Kar-kar-kar. ●



Kolapso

✍️ IÑIGO BASAGUREN-DUARTE 📷 JOKIN AZPIAZU

Lehenengo aldia Barrikan izan zen, hondartzatik bueltan bere lagunek esaten zutena ulertu ezin izan zue-nean. Euren ahoetatik ateratzen ziren hitzek ez zuten zentzurik Nagorerentzat. Errealitatetik kanpo egongo balitz bezala zen. Bere lagunen ezpainak mugitzen ziren eta soinuak ahoskatzen zituzten, baina ulertezinak egiten zitzaizkion. Horrela ematen dio hasiera Nagore Gartzia Fernandez-ek (Sopela, 1984) bere *Colapso* (Las Hedonistas, 2021) liburuari.

“Zure oinak zeruan eta burua lurrean” abesten zuen Pixies taldeak *Where is my mind?* abestian. Antzera sentitzen zen Nagore, bere munduak, tarte txikietan bazen ere, zentzurik izango ez balu bezala. Nahasmendu egoera horrek larritu zuen, are gehiago gertaera hori errepikakorra bihurtu zenean. Orduan hasi zuen amaigabea zirudien bidaia. Kontsulta batetik bestera ibili zen frogak eta mediku desberdinen aurpegiak pilatuz, diagnosi zuzena noiz lortu zain.

Nagore bere historia kontatzera animatu da, lehenengo idatziz eta gero jende aurreko aurkezpenak eginez Mari Luz Esteban antropologoaren konpainian. William S. Burroughs idazle estatubatuarrek hizkuntza birus estralurtar bat dela eta sortzen duen gaixotasunaz libratu ahal izateko erremedio baka-rra idaztea dela adierazi zuen, soilik hitza gorputzetik atera eta gorputz osatuko ginela. Badirudi Nagorek Burroughs-en gomendioa jarraitu duela. Bere izaera ikertzaile eta etnografikoa txikitatik datorkion idazketarako grinarekin uztartu ditu bere gaixotasunari buruz ez ezik, honek ekarri dion bidaia gogorrari buruz ere idazteko.

Sintomak argiak ziren: hitzak ulertzeko gaitasuna galtzen zuen denbora tarte txikietan, noizbehinka, baina gero eta sarriago. Osasun sistema goitik behera bisitatu behar izan zuen diagnosi zehatz bat lortu arte: bere gaitza epilepsia mota baten ondorioa zen. Bai-

'COLAPSO' LIBURUAREN AURKEZPENA

NOIZ: Martxoak 1



NON: Louise Michel liburu-denda (Bilbo)

na Nagoreren kontakizunean, kontakizun guztietan bezala, garrantzitsuena ez da helburua –kasu honetan diagnosis– bidea baizik. Biopolitikak gudan duen eragina ikuspuntu pertsonal bate-tik deskribatu eta aztertu du idazleak. Medikuntzaren eta sendagaien indarkeria eta dizi-plinamendua ditu jomugan, besteak beste. Bere kolapso pertsonala ez da liburuaren izenburuaren atzean dagoen bakar-ra, sopoloztarrak osasun sistemaren kolapsoaz eta beste hainbatez hitz egin baitu: kapitalismo berantiarren kolapsoaz eta gure osasunarengan duen eraginaz; hirien kolapsoaz, hauek ezin bizikoak bihurtu baitira, biztanleak kanporatzeraino. Lagunak ere presente ditu Nagorek bere kontakizunean, beldurra eta ezjakintasunaren aurrean babestu eta lagundu dutenez mintzo da sarri. Babes sare eta komunitate indartsu batez inguratzeak inoiz baino garrantzi handiagoa baitu kolapso garaietan. ●



Puzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA LEIRE VILLANUEVA LÓPEZ «ISEO» ABESLARI NAFARRAK, ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	7		8		5		
		1	9		2		6
5		2			9	8	
		7		9	4		5
6	9				3	2	1
1	8	5			6	4	9
	5		7	6	9		3
2	6	9	5	3			4
7	1			4	6		

ERRAZA


		2				1	4
9			1			2	6
	4						
	3	9			1		
4	8			6		9	1
				2		5	
			4		9	8	
			6	3			
1	9			2		7	

ZAILA

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Lo-egoeran.
2. Otea hazten den toki.
3. Bangladeshko moneta (pl).
4. Adar moztu.
5. Elastikoa, kamiseta.



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				E	T	A	K	O
2	A				T	U	R	A
3	G	I				R	A	K
4	T	X	A				L	A
5	Z	I	E	R				A
6	B	A	R	R	U			

EBAZPENAK

7	1	3	2	2	4	4	8	6	5	9
2	6	9	5	3	1	7	4	8		
4	5	8	7	6	9	1	3	2		
1	8	5	3	2	6	4	9	7		
6	9	4	8	7	5	3	2	1		
3	2	7	1	9	4	8	6	5		
7	4	1	2	9	6	3	5	8		
8	4	1	9	5	3	7	2	6		
9	7	6	4	8	2	5	1	3		

ERRAZA

1	9	4	8	5	2	6	7	3
5	7	8	6	1	3	4	9	2
3	2	6	4	7	9	8	1	5
6	1	7	9	2	8	5	3	4
4	8	5	3	6	7	9	2	1
7	4	1	2	9	6	3	5	8
2	3	9	5	4	1	7	8	6
8	4	1	2	9	6	3	5	8
9	5	3	1	8	4	2	6	7
6	2	7	3	5	1	4	9	

ZAILA

PUZZLEA: "HASIERAN DENA EZ DA MOKETA ETA PURPURINA, ARGI DAGO. GAKOA IZAN ZEN AUKERA HORI EMAN NIOLA MUSIKARI. BIZITZA OSO MOTZA DA ETA PROBATU BEHAR DA." **5XS:** 1. LOTAN, 2. OTADI, 3. TAKAK, 4. ADARI, 5. NIKIA. **HIZKI BERAK:** 1. BENETAKO, 2. ABENTURA, 3. GINEBRAK, 4. TXANBELA, 5. ZIERBENA, 6. BARRUNBE.

Elena Crespi Asensio

EZ-BINARISMOA ALDARRI



ETXEKOAK

“Haurtzaroa emakumez inguratuta pasa nuen, nire amarekin eta amaxirekin: eurek zaindu, elikatu eta hazten lagundu ninduten. Etxean zein kanpoan lan egiten zuten emakumeak ziren, *super-womanak*. Eta gizonezkoek ere zaindu ninduten, aita eta aitatzik. Hein batean, maskulinotasun hegemonikoarekin hautsi zuten eurek, baina etxetik kanpo lan egiten zuten gizonezkoen eginkizunak irudikatzen zituzten... Etxeko logistika zein alde emozionala, aldiz, beti egon izan da emakumeen esku gurrean. Gure belaunaldiak eta gure seme-alabek desberdin egitea espero dut...”

“Begirada transinklusi borik gabe ez dago feminismorik, transfobia dago”

Elena Crespi Asensio (Torelló, Herrialde Katalanak, 1981) psikologoa, sexologoa eta Con V de Violeta kongresu feministaren sustatzailea da. Martxoaren 28tik 31ra bitarte izango da bigarren edizioa, online, eta maskulinotasuna izanen dute hizpide. Hitzaldiak doan ikusi ahal izango dira 24 orduz eta ordainduz gero bideo zein audio formatuan gorde ahal izango dira.

 SAIOA BALEZTEN  SARA BLÁZQUEZ

Zergatik da garrantzitsua gure feminismoa berrikustea?

Modu horretan soilik konturatuko baikara barneratu ditugun irakaspen matxistez. Feminismoan murgiltzea ikaskuntza eta berrikusketa prozesu iraunkorra da, gero eta kontzientzia handiagoa hartzen baitugu horrela, egiazki matxistak diren eta normalizatu ditugun gauzekiko. Berdina gertatzen da eguneroko arrazakeria, kapazitismoa, LGTB+QA+fobia eta abarrak antzematen hasten garenean...

Begirada transinklusi boro faltan somatzen al duzu gainontzeko egitasmo feministetan?

Aunitz. Are gehiago, hori ere izan zen Con V de Violeta sortzeko arrazoietako bat. Begirada transinklusi boro gabe ez dago feminismorik, transfobia baizik. Eta borroka feminista borroka intersektionala den heinean, emakumeok (zisgenero zein transek) pairatzen ditugun zapalketen kontzientzia hartzeko ere borrokatzen du. Zapalketa horiek ugaritzen dira,

gainera, zapal dutako bertze kolektiboetako kidea bazara. Gizarteratu diren espazio gehienetan begirada zisheteroa nagusitzen da eta, bertze hainbatetan, partaide transfobikoek parte hartzen dute. Imajina dezakezu ikasketa espazio bat teoria arrazistak defendatzen dituen norbaiten partaidetzarekin? Edo faxistak? Nik behintzat ezin dut onartu giza eskubideen alde lan egiten ez duen ekimenik, beraz, diskurtso transfobikoak ez dira, inolaz ere, feministak.

Feminismoaren banaketa egiazkoa da edo patriarkatuaren eraikuntza bat da?

Feministon arteko banaketa garaien patriarkal eta kapitalistari handienetakoa da. Banatuta bagaude indar gutxiago dugu, elkarren aurka egiten badugu ahulagoak izanen gara. Bakoitzak soilik norberarengan pentsatzen badu, gainontzekoei gertatzen zaiena gutxiesten dut eta, beraz, patriarkatuak eta kapitalak irabazten du. Horregatik ezinbertzekoa da indarrak batzea.



"Feministon arteko banaketa garaipen patriarkal eta kapitalistak handienetakoa da. Banatuta bagaude indar gutxiago dugu".

Zure genero nortasuna zalantzan jartzen ari zarela erran izan duzu. Zein izaten ari da zure prozesua?

Gogoeta prozesu batean nago oraindik eta zaila egiten zait erantzutea. Baina argi dut bidezkoak ez diren rol batzuen arabera hezi nautela eta jaio nintzenean emakume gisa etiketatu izanagatik aukera anitz ukatu zaizkidala. Horregatik, emakume izateak zer erran nahi duen zalantzan jartzen hasi naiz...

Eta, zer erran nahi du?

Lehendabiziko hilekoa izan nuenean emakumea nintzela erran zidaten, amatasuna nire esentziaren parte dela ere erran izan didate beti, emakume izateagatik sentikorrakoa naizela eta ederra izan behar dudala... eta orduan nire buruari galdetzen diot: zer da egiazki emakume egiten nauena? Irakatsi dizkidaten eginkizunek edo dudan gorputzak? Emakume gisa definitzen ninduela erran izan didaten guztiak ez nau definitzen. Beraz, etorkizuna ez-binarioa dela uste dut irmoki. Motz gelditzen zaizkigun bi nortasunetan sartu gaituztela uste dut. Horregatik,

izenordain femenino eta neutroekin ordezkatuta sentitzen naiz. Ez dakit eztabaida hau norantz joanen den, baina zalantzan jartzea positiboa da niretzat eta aberasten nau.

Amatasuna aipatzen zenuen. Historikoki deserosoa izan da feminismoarentzat. Zergatik?

Gizarte patriarkalak amatasuna inposatu duenez, feminismoaren olatu batean askatasun sexualaren aldeko aldarria nagusitu zen eta feministak bertze murreraino joan ziren. "Patriarkatuak ama izatea nahi badu, kontrakoa eginen dugu", alegia. Baina horrek ere ez digu, emakume gisa, askatasun gehiago ematen, eta ama izan nahi duen emakume bat feminista izan daiteke berdin-berdin. Arazoa ez da ama izatea edo ez, arazoa da hori zoriontasunaren bide bakarra dela ulertzeko hezte, betebeharra izango balitz bezala, hain zuzen ere. Horregatik ezinbertzekoa da gure haurrak askatasunean hezte.

Baina, nola hezi daitezke haurrak feminismoan?

Erronka garrantzitsuenetako bat da hori, eurek aukera baitute gauzak desberdin egiteko. Ez dut hemen argi azaltzeko nahikoa tokirik, baina familiok ardura dugu eredu izateko, berdintasunean hezteko baliabideak eman eta eskoletan heziketa feminista aldarrikatzeko. Zalantzarik gabe, hagitx zaila da komunikabideetan, marrazki bizidunetan, telesailetan edo sare sozialetan nagusitzen den edukia aldatzea, baina garrantzitsua da belaunaldi berriek begirada kritikoa izan dezaten eta matxismoa identifikatzeko baliabideekin hezte. Eta, zentzu horretan, erronka nagusia da mutilak nola hezten ditugun, oso tikiak direnetik, genero sozializazioaren bitartez mutilei eskubide eta eginbehar desberdinak ematen zaizkielako neskekin alderatuz, eta horrek ondorio negargarriak ditu.

Amaitzeko, zein da feminismoaren erronka nagusia, zure ustez?

Gure arteko sororitate handitzen jarraitzea eta gizonezkoek urrats bat ematea feminismoaren egiazko aliatu bilakatzeko. ●

Belaunaldi-haustura


 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Nola gertatu zen imajinatzen saiatzen ari naiz. Entrenamendu bat, beste edozein bezalakoa. Korrika ari da, beste edozein jokalarirengandik erabat desberdin, bakar, ezinbesteko egiten duen oinkada horrekin. Eta bat-batean, klasika. Ezkerreko belauna. Aurreko lotailu gurutzuak puskatzen denean egiten duen soinu hori, beste edozein soinuaren aldean hain diferentea. Albiste txarrek ateratzen duten hots terriblea. Adituen arabera, haustura larrienetan belaunaren jabeak bakarrik ez, inguruan daudenek ere entzun omen dezakete. Klaska. Femurra eta tibia erremediorik gabe elkarrengandik deslotzen. Mikel Oyarzabalen ezkerreko belauna, egoeraren laburpen gisa.

Dei nazazue fribolo. Esadazue: mundua dagoen bezala eta zu futbolaz. Ez duzue ikusten belaun hori puskatzea sintoma bat dela. Ez dela talde konkretu bateko jokalaria zehatz baten artikulazio jakin bat bakarrik geratu kolokan. Oyarzabalen belaunean ikus daitekeela zintzilik geratzen ari den belaunaldi oso bat, pasa behar izan dituen bi urte putapeniko eta, egoera hobera etortzen ari zela zirudienean, klaska, jaso duena garai putapenikoagoak datozen iragarpena.

Mitologia greziarretik ezagunak zaizkigu Sisiforen harria eta Akilesen orpoa, metaforen meategiak balira bezala usiatzen dituzte elitiko kirolariren bat lesionatzen denean. Baina Oyarzabalena –eta harekin batera Oyarzabalen belaunaldia– tropo batean kapsulatze-kotan, badago beste mito bat egokiagoa: Tantalorena –irakurri izena bi begiekin faborez, ez nahastu gure Tartalorekin–.

Zeusek aintzira bateko uretan belaunetaraino murgilduta egotera zigortu zuen Tantalos. A ze zigorra, esango duzue, aber jainko greziarrak ez diren



hain kabroiak izango azken finean; itxoin, itxoin, utzi dena kontaktzen: Tantalok eskura zeuzkan inguruko fruitu-arbolen adarrak, baina tripa zimurtzen zitzaionean, fruta freskoa hartzeko eskua luzatzen zuen eta adarrek atzera egiten zuten. Beti. Ezin ezer ahoratu. Egarrri zelako makurtzen baldin bazen, beste hainbeste. Urak ere atzera egiten zuen. Tantalos, eternitate osorako gose eta egarrri, asetzeko behar zuen guztia begi-bistan eduki arren. Realeko kapitaina partidu bati begira bezala. Bere adineko gazte asko formazio edo enplegu-eskaintzei begira bezala. Pazientzia jainkotiarra eskatzen zaie.

Futbolarekin lotutako notiziek badeute abantaila bat ordea, beste notizia gehienek ez dutena eta mitologia

greziarrarekin zuzenean konektatzen duena: epika zilegi dela. Ezinezko itzulerak. Garaipenak. Beste edozein erregistrotan komiko samar bihurtu diren gauza horiek. Horregatik, nigan batere ohikoa ez den baikortasunez begiratzen diet bai belaun horri, baina baita, hedaduraz, belaunaldi horri ere. Ulertu behar da zer gertatu den. Agian presio handiegia jasan dutela. Agian gehiegi eskatu zaiela. Edo agian, besterik gabe, horrela gertatzen direla gauzak. Hautsitakoa hautsita, berreraikuntza-lanak dirudi une honetan ezinbestekoa, Oyarzabalen belaunaz ari bagara. Eta ezker hegaletik lasterkaldi gogoangarriak egin nahi dituzten gainontzeko guztiek ere, ondo egingo lukete artroskopia baterako zita eskatuta, nik uste. ●



Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diozu Bilboko Mbolo Moye Doole elkarteari. Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.

Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.

Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.

argia.eus/eginargiakoa

komunitatea@argia.eus | (+34) 943 37 15 45